



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA**

2015-2016

**TOPAGUNEZ TOPAGUNE, EUSKAL GAZTE  
MUGIMENDU INDEPENDENTISTAREN  
BILAKAERA**

EGILEA: AMAIA AGIRRETXE GORROTXATEGI/AUTOR-A:

ZUZENDARIA: MARIO ZUBIAGA GARATE

2016ko irailaren 14a

*Zahar gazte arteko hau da parabola:  
zuzen esplikatzia hein bat gogor da  
gaztea ez daiteke adin batez molda,  
gorputza sendo eta azkar du odola.  
Zaharra ez da hola,  
iragan denbora  
etortzen gogora,  
eta ezin kontsola...  
nekez bihurtzen baita zahar arbola!*

*Joanes Etxalde, 1932*

*"Gaztetasuna eta zahartasuna"*

## AURKIBIDEA

---

1.SARRERA.....	4
2. MARKO TEORIKOA .....	7
2.1 GIZARTE MUGIMENDUAK, sarrera teorikoa .....	7
2.2 EZ DA MUGIMENDU GAZTEA, GAZTE MUGIMENDUA DA, Ikergaia....	11
2.3 EUSKAL NAZIO ASKAPEN MUGIMENDUA.....	16
2.4 LAU HAMARKADA DAUDE JARRAI-TIK ERNAI-RA.....	19
2.5 GAZTE TOPAGUNEAK .....	30
3.DISEINU METODOLOGIKOA.....	33
4.IKERKETA.....	38
5.ONDORIOAK .....	57
6. BIBLIOGRAFIA .....	59
7. ERANSKINAK .....	63

## 1. SARRERA

---

Amaitu esaldia “gaur egungo gazteak...” eta jarrai dezakegu esanaz: ez direla ez garai batean bezalakoak, ez dutela politikarekiko interesik, alfer hutsak direla, dena eman izan zaiela eta ez dakitela daukatena baloratzen, drogak soilik darabiltzatela buruan. Edo alderantziz: garai batekoek baina egoera zailagoa pairatzen dutela, ez dutela meritu makala, inoiz baino formatuagoak daudela, irudimena eta kemena badituztela. Eta ziurrenik, esaldiak izango du zerbait errealitatetik, eta asko iruditegitik.

Modu ezberdinetan definitua izan da gaztetasuna, ezin uka gizartea aldatzen doan heinean gazte izateko moduak ere aldatu direnik, edo alderantziz, gaztetasun ereduen bilakaerak baduela eraginik gizartearen aldaketan, edo behinik behin, elkarreraginean.

Gazte izateko moduen bilakaerak, gaztetasunaren nolakotasunek, oro har, interes soziologikoa pizten dute. Baina ez da hori, zehazki, hemen bilatzen duguna. Norbanakoen gaztetasunari baino, gazte mugimenduaren ezaugarritzei erreparatu asmo baitiegu.

Bestelako aukerak badirela jakitun, bide horri gizarte mugimenduen gaineko teorizazioarekin emango diogu hasiera. Helburua gizarte mugimenduen nolakotasuna aztertzea ez dela onartuz, gizarte mugimenduak abiapuntutzat hartuko ditugu gazte mugimenduan murgiltzeko. Euskal Herriko gazte mugimendua edo zehatzago, euskal gazte mugimendu independentista eta bere bilakaera izango ditugu aztergai, beraz, euskal herriko gatazkari eta nazio askapen mugimenduari erreparatuko diogu gazte mugimendua, nolabait, bere baitan kokatuz.

Gizarte mugimenduen izate lausoak, eragile instituzionalizatuen zurruntasunarekin konparatuz gero behintzat, bere baitako subjektuen definizioa zaildu dezake. Lan honetan, Ezker Abertzalearen baitan kokatu izan diren eta kokatzen diren gazte antolakundeek egindako ekimenak

aztertuko ditugu, Euskal Herriko gazte mugimendua ekimen hauek barnebil dezaketen eremu ideologiko eta soziologikoa baino zabalagoa dela jakitun izaki.

Gazte mugimendua eta bere bilakaera ez da inolaz homogenea izan, beren buruak mugimendu horren baitan kokatzen dituzten subjektuek ez dute ahots bat eta bakarra, baina ezin uka bilakaera bat egon denik. Adierazle ugari balia daitezke bilakaera hori aztertzeko: borroka moldeak, protesta ereduak, landuriko gaiak, diskurtso politikoa, komunikazio moduak, estetika, militantziaren perfila, eragin esparrua, antolaketa ereduak, finantzaketa, sorturiko baliabideak etab. luze bat. Bakoitzaren adierazgarritasun maila, noski, interpretazioen araberakoa delarik. Bada baina, guretzat interesgarria den eta mugimendu konkretu honen azken urteetako bilakaera nolabait isla dezakeen ekimen zentral bat, euskal gazte mugimenduaren baitan erreferentzialtasuna aitortu beharrekoa, Gazte Topaguneak.

Izan ere, Gazte Topaguneak euskal gazte mugimendu independentistaren mobilizazioak dira, nahiz eta mobilizazio soilak ez diren. Hiru-lau egunetako luzapenarekin, jorratzen diren gaiak ikusiz, erabiltzen diren mezuei erreparatuz, azpimarratzen diren helburuei arreta paratuz... Topaguneen bidez gazte mugimenduaren errealitatearen argazki bat egin genezake.

Hala, lehendabiziko Gazte Topagunearen edizioa 1994. urteko udaberrikoa da, Etxarri Aranatzeko Jarrak antolatuta. Azkena, berriz, 2016. urtean Ernai eta Aitzina antolakundeek elkarlanean sustaturiko Gazte Danbada, Laudion izan da.

Lan honi atxikitzen diogun helburu nagusia Gazte Topagunetik Gazte Topagunera bilakaerarik egon den eta berau nolakoa izan den aztertzea da. Horretarako, hipotesi nagusi bat proposatzen dugu: Topagunez topagune euskal gazte mugimenduaren bilakaera nabari dezakegu, bilakaera horretan baina, alor batzuk duten garrantzia mantendu egin da (adibidez, independentismoa), eta beste batzuk aldatzen joan dira.

Bilakaera hori koiuntura politikoarekin erlazionatua dagoela soma genezake, nola Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren estrategia eta errealitatearekin, hala euskal gazteriak pairatu errepresioarekin eta uneko aukera politikoarekin. Hau frogatzeak lan handiago bat suposatzen duela jakitun, zertzelada batzuk baliatuko ditugu bilakaeraren ildoari lagunduz.

Horrela bada, gazte baten ahotik hain gazte ez direnek idatzitakoei erreparatu eta irakurlea zahartu asmo ez duen bidaia egitera gonbidatuak zaudete.

---

## 2. MARKO TEORIKOA

---

---

### 2.1 GIZARTE MUGIMENDUAK, SARRERA TEORIKOA

---

Gizarte mugimenduen gaineko teorizazio akademikoek gora egin dute azken hamarkadetan. Fenomeno soziologiko zein politiko multidimentsionalak kontsideratu izan dira, hortik ikerketarako interesa, begiraden aniztasuna. Egon da, bestalde, auto teorizatorako joerarik. Zer edo nor kontsidera daiteke gizarte mugimenduen baitako, eta zer edo nor kanpoko? Subjektuen afera edo ekintzaren nolakotasunean kokatzen da gakoa? Jardun eta elkarrekintza kolektiboek dituzten helburuen arabera ote?

Elkarreragin arautu gabearen baitan kokatu ditzakegu gizarte mugimenduak, horrek ez du esanahi beren jarduna arautik kanpo kokatzen denik, ez baitute zertan bat egin eragile baten nolakotasunak, bere harremanek eta jardunak. Izan ere, boterea eta gatazka gurutzatzen direnean, hots, politikotasuna sortzean ernaltzen dira gizarte mugimenduak. Zer nahi duten baino, zertarako ari diren eta beren jarduna nola garatzen duten gakoa izaki. Literatura akademikoari erreparatuz, Charles Tillyk (2004) gizarte mugimenduak botere jabeen eta ordezkari formalik ez duen gizartea defendatzen ari diren gizabanakoen arteko elkarreraginen segida bezala definitzen ditu. Elkarreragin horretan gizabanako horiek botere banaketan edo boterearen egikaritzan aldaketa aldarrikatzen dute, beren sostengurako adierazpen publikoaren bidez. Izan ere, Michael Foucault-ek (1979) zioen moduan, botereak erresistentzia sortzen du, eta beraz, erresistentziak boterea.

Gizarte mugimenduek gizarte zientzien baitan hartu duten protagonismoak ikuspegi askotatik teorizatu izana ekarri du. Baliabideen errekurtsuen teoria, prozesu politikoena, portaera kolektiboarena, identitateena eta eraikuntza sozialarena dira horietako batzuk. Definizioen

aniztasunaren aurrean, interesgarritzat hartu da Salvador Martí i Puig-ek burututakoa:

Un movimiento social es un agente de influencia y persuasión que desafía las interpretaciones dominantes sobre diversos aspectos de la realidad, incidiendo así en todos los ámbitos de la política: en el ámbito simbólico porque es un sistema de narraciones que pretende crear nuevos registros culturales, explicaciones y prescripciones de cómo determinados conflictos son expresados socialmente y de cómo el status quo anterior “debería” ser rediseñado; en el ámbito interactivo porque es un actor político que incide en el conflicto social y pretende cambiar la correlación de fuerzas existente en un ámbito concreto de conflicto; en el ámbito institucional porque incide e impacta en (transformando o tensionando) los espacios que regulan y canalizan las conductas de los actores a través de acciones no convencionales y contenciosas; y en el ámbito sustantivo porque es un instrumento de cambio de la realidad” (Martí i Puig, 2002: 2).

Tarrowek (1998) esanarekin bat, mugimendu sozialen garapena, klima kulturalari atxikitako egiturazko aukeren araberakoa litzateke. Koiuntura politikoak eragin zuzena du gizarte mugimenduen nolakotasunean, ez beharbada hainbeste, izatean edo existentzian.

Gizarte mugimenduen teorizazioak, berau ikertzeko metodologiak garatzea ere suposatu du. **Agenda klasikoan**, oro har, gizarte mugimenduak aztertzeko lau atal desberdinak izan dira: mugimenduaren aukera politikoak, protestarako ekintza moten bilduma, mobilizatorako egitura eta sareak, hots antolakuntza, eta diskurtsoak edo marko diskurtsiboak. Diani eta Della Portaren (1999) eskuliburuan jasotzen dira atal hauen ezaugarritze nagusiak. Gazte Topaguneak aztertzeko baliagarriak izango zaizkigulakoan, zertzelada batzuk jasoko ditugu.

Aukera politikoez edo **aukera politikoaren egituraz** ari garenean gizarte mugimenduek testuinguru aldakorrean jarduten dutela hartu behar dugu kontuan. Ingurunea aldakorra den heinean, mugimenduaren funtsa eta ekintza kolektiboaren nolakotasuna ere aldatuz doaz. Testuinguruaz ari garenean, eragiten duten faktoreak beti berdinak ez badira ere, eragile



politiko instituzionalak (Estatu forma, unean uneko gobernuak, boterea) eta kultura politikoa dira batik bat, kontuan hartu beharrekoak; hauek, eta berauekiko harremanak mugimenduaren nolakotasuna eta bilakaeran eragiten baitute.

**Protesta erreperitorioa** izan da agenda klasikoaren baitan gizarte mugimenduak ezaugarritzeko beste irizpide bat, Gazte Topaguneak ere finean, protesta erreperitorioak lirateke, aldian aldiko ezaugarritzeekin. Protestaren izaeraren bidez mugimenduak erakargarritasuna eta legitimitatea landu beharko ditu (Zubiaga 2007). Boterearekin etengabeko legitimitate lehian mobilizazioek gizartearen nolabaiteko sostengua behar dute. Sostenguaz harago, baina, mugimendu bakoitzaren azpi kulturak ere izango du ekintzaren nolakotasunean eraginik, momentuko marko ideologikoak protesta ekintza erabilgarrien eremua baldintzatuko baitu. Horrez gain, aurrez aipaturiko aukera politikoek, kanpo mehatxu eta eragilearen ahalmen politikoak mobilizazio ereduaren eragiten dute (Della Porta eta Diani, 2006).

Gizarte mugimenduen baitako eragileek dituzten **harreman** edo **sareek** informazio ugari ematen digute beren kokapen politikoaz eta estrategiaz. Izan ere, ekintza kolektiboan parte hartzen duten herritarrak saretuta egon ohi dira, sare horien bidez beren mundu ikuskera zabaltzeko aukera garatuz (Zubiaga 2007). Sidney Tarrowren arabera (2004) Erakundearen arteko harremanak sare interpersonalak eta egituren arteko hartu-emanak aztertuz neurtzen dira. Modu honetan, saretzeaz eta harremanen nolakotasunaz gain, aliantza estrategikoen berri izan dezakegu.

Saretzea eta harremanak eragile baten **antolaketa** edo egituraketarekin ere guztiz lotuak ageri dira. Biak, hala nola, elkarerraginean kokatu behar ditugu, eta ez mugimendu baten izate isolatuan. Hala, antolakuntzak eragile baten instituzionalizatzeko maila, barne hierarkiak, zentralizazioa, parte hartze gradu eta neurriak eta erradikaltasuna neurtzeko lituzke, antolaketa eredu desberdinak konparatu eta sailkatuz (Della Porta, 1999).

Azkenik, agenda klasikoko atalen baitan **diskurtsoak** eta diskurtsoak ahalbidetzen dituzten **marko diskurtsiboak** ditugu. Mugimenduak bere helburuen araberako zentzua eman nahi izango dio errealitateari, gero berau aldatu ahal izateko. Horretarako, mugimenduaren ardatza den fenomeno problematizatzea dagokio, arazoak ez baitira berez/naturalki existitzen gizartean, diskurtsoaren bidez bilakatuko litzateke gertakizuna arazo (Zubiaga 2007).

Mugimendu sozialei, behin sortu eta, egoera injustuzat jotzea, erantzuleen eta ondoren aurkarien izendatzea, ekintza kolektiboarekin egoera alda daitekeela uste izatea eta gizarte-proiektu baten proposatzea, ezinbestekoa zaie (Urteaga 1995).

Jakina denez, eragile baten diskurtsoak modalitate ezberdinetan analiza daitezke, adierazpen publikoek, irakurketa edo komunikatuek zer eta nola esaten denaren balioa adierazten baitigute.

## 2.2 IKERGAIA: EZ DA MUGIMENDU GAZTEA, GAZTE MUGIMENDUA DA

---

Gizarte mugimenduen ezaugarritzean helburuen nolakotasunaz eta agenda klasikoak erabiltzen dituen azterketa irizpideez gain, ohikoa da identitate adierazpenen bat izatea. **Identitate** hori zapalduen kontzientziazetik eratorria litzateke, nahiz beti horrela izan ez.

Langile mugimenduek klase zapalduaren identitateak, mugimendu feministek, beltzen mugimenduek, nazio askapeneko mugimenduek, LGTB mugimenduek eta beste askoren artean hemen aztertzeraz goazen gazte mugimenduetako subjektuek partekatzen dute halako nozio bat: elkarreraginerako interesaren abiapuntu izan daitekeen zapalkuntzaren bat pairatzearen kontzientzia. Injustizia pertzepzioak parekatu daitezkeen arren, mugimendu ekologisten baitako subjektuen identitateak (adibidez) ez luke halako ezaugarritze komunik: langile klasekoa, emakumea, beltza, nazio zapalduko kide, sexu desiren orientazio edo sexu identitate ez hegemonikodun, edo gure kasuan gazte, edo beharbada, ez heldu.

Hala nola, gazte mugimendua gaztetasun identitatearen inguruan artikulatuko litzateke, helduentzat eta heldutasunetik pentsatuta, helduen logikan eraikia dagoen mundu baten aurrean.

**Helduen boterearen** logikan, esperientzia pilatua duenari boterea aitortzen zaio, ezagutza eta arrazoiaren forman. Hiztegiak oso ondo islatzen du: heldutzea, nagusitzeari baino, zentzuduna izan eta arrazoiak eskuratzeari esaten zaio; heldutasun politikoa esaten zaio arrazionalizatzeari (eta konformatzeari, amore emateari askotan?)...  
(Irati Sienna, 2016)

Gaztetasuna bera heldutasun biologikotik heldutasun sozialera doan tarte bezala definitua izan da gazteriaren soziologian (Ormazabal, 2014: 68). Heldutasun soziala lortzeko ardurak, hots, lana, etxebizitza eta familia, bereganatzea da gakoa, prozesu mailakatuan zehar gazteek bizi estilo bat garatuko luketelarik. Gaztetasun moduan definituriko prozesu mailakatuak

betebeharraren eta dibertsioaren zutoinak ditu. Gazte izatea, trantsizio fase bat bailitzan ezaugarritzeak badu bere eraginik:

Gazte izatearen definizio hori kontsentsu sozial, politiko eta akademiko baten abaroan mugitu da orain artean. Eta gaztea "tarte" bizi zen pertsona gisa definitzeak, gazteria kategoria sozial gisa ez definitzea ekarri du. Kontsentsu horrek "gazte izatearen" egitatea "itxoite pasibo" baten kondizioarekin lotzen du.(...)

Gazteak pertsona helduen proiektu soil direla baieztatzen denean, "babesaren" argumentuarekin justifikatzen da proposamena; pertsona oso eta heldu edo eskubide denak dituen hiritar aktibo izan gabe pairatu ditzaketen "balizko arriskuak" aipatzen dira, eta onartzen da orientatu, lagundu eta zuzentzearen beharra forma seguru batean heldu kondiziorako bidean. (Ormazabal, 2014: 69)

Heldutasunari arrazoia eta ardura naturalki atxikitzean, norbanako (gazte) ororen meta bailitzan kokatuz, heldua ez den horri ezaugarri hauek ukatzen zaizkiola uler daiteke; hots, gazteak arduragabeak direla, oraindik ikasteko daudenak, ezagutza esperientziarekin eta esperientzia heldutasunarekin harremanduaz.

Gazteek egindako lanari balio gutxiago aitortzen zaio, gizarteko gainontzeko sektoreek era gutxiesgarrian begiratzen eta ondorioz, ikusten dituzte, eta aldi berean gehiegizko babes paternalista ematen zaie, erantzukizunak hartzea zailtzen duena. Dena errazteko asmoz, edo, dena zailagoa da, gazteria ikusezintasunean dago eta existitzen ez denak ez du gizartean parte hartzen (Ormazabal 2014: 77).

Gaztea heldua izatera iritsi ez den hori bada eta desorientazioa ezaugarritzen bazaio, jarrera paternalistaz subjektu izaera ukatuz, gazteen eta helduen arteko botere hierarkia osatzen da. Gazteek pairatzen duten zapalkuntza espezifikoa heldu boteretik eratorria da. (Endika Perez, DanbaTB, 1:01) **Gazte boterearen** eta heldu boterearen artean, helduen boterea da hegemonikoa, eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren baloreak ditu.

Marxismoaren baitako autore batzuk heldu boterearen bestelako definizio bat burutu izan dute. Heldu boterea produkzio sistemaren jarraikortasuna emateko unean une esplotatu ahal izango den lan indarra bermatzeko botere konkretua da (Gil de San Vicente, 2011). Iñaki San Vicentek heldu boterearen baitan kokatzen ditu familia, eskola, unibertsitatea, kontrol soziala, komunikabideak eta aisialdia, besteak beste; gazteen auto antolakuntza ekiditea izango luke heldu botereak helburu. Hortik, gazte mugimenduaren eta antolakuntzaren beharra.

La juventud tiene que crear espacios de relación que sean distintos de los que le impone el poder adulto. (...)La burguesía repite hasta la saciedad de que la juventud es inconstante y despreocupada, la juventud si se le deja es capaz de organizarse, de construir sus espacios y de conseguir logros impresionantes. El objetivo del movimiento juvenil es el de acelerar la formación crítica de la juventud para que esté en las condiciones óptimas de autoconstruirse como generación adulta con capacidades de praxis revolucionaria omnilateral y pluridimensional, justo todo lo contrario del adulto infantilizado, dependiente, y unilateral, creado por el sistema capitalista mediante el poder adulto, entre otros disciplinadores y represores. (Gil de San Vicente, 2011)

**Gazte mugimendua**, eta bere bitartez artikulatzen den gazte boterea, beraz, ezinbestekoak izango dira helduen boterean oinarritutako sistema iraultzeko. Izan ere, sistemak helduak behar ditu bere horretan irauteko, gazteak neutralizatuta mantentzeko; eta mugimendu iraultzailek gazte boterea behar dute aurrera egiteko, ez estankatzeko, etengabeko mugimenduan jarraitzeko (Sienra, 2016).

Gazte identitatea eta gazte boterearen bidez helduen botereari hegemonia borrokatzea dira ziurrenik gazte mugimendu ezberdinek partekatzen dituzten ezaugarri nagusiak. Gainerakoan kultura politikoak eta koiuntura sozio kulturalak eragiten dute, tokian toki eta unean uneko ezaugarritzeak aldakorak direlarik.

Aitzol Loiolarentzat (2009: 558) bada egungo gazte mugimendua definitzen duen ezaugarri nagusi bat, "jauzi handiak emateko, urrats ttipiak

ezinbestekotzat jotzea”, alegia praxi eraldatzailea epe motzeko helburuetan finkatzea, egunerokotasuneko arazoei aurre eginez, jauzi kualitatiboak emateko.

Gizarte mugimenduen demokratizatzeko funtsaren baitan, honela ezaugarritzen du Loiolak gazte mugimenduaren izatea:

El movimiento juvenil pone de manifiesto las contradicciones del sistema de democracia representativa existente (...) y proyecta un modelo de democracia emergente de abajo a arriba, sustentado en una concepción democrática del principio de soberanía. “Gazte antolakuntza eta herri eraikuntza. Fight the power and take the power. Boterea borrokatu, eta boterea sortu. Kontraesanen askabidea, bitarteko eta botere”. El movimiento juvenil deviene, en si mismo, en escuela de reflexión y tomas de decisión colectivas; una escuela construida por los propios jóvenes, que adoptan sus propias decisiones como sujetos activos, construyendo y transformando la realidad en que viven (con sus propios aciertos y errores, aportaciones y contradicciones). (Loiola Idiakez, 2009: 560)

Gazte mugimenduak izan duten bilakaera aztertzeko belaunaldi aldaketaz gain, politika ulertzeko moduak aldatu direla ere onartu behar da. Ormazabalek bere analisisan, gazteek politika ulertzeko eta bere baitan harremantzeko duten moldeak aldatu direla adierazten digu. Garai batean, politika zuzenean estatuari eta alderdiei atxikitzen zitzairen, egun, politika egunerokotasuneko praktikan aurki dezakete (Ormazabal 2014: 73). Gehiegizko instituzionalizazioak politika lau urtez behin ematen den bozarekin alderatzen duen bitartean, parte hartze eremura hurbiltzen direnek politikaren adiera zabalagoa dute, politika dena da ulertzen duena.

Ormazabalen arabera, aldakortasuna eta ziurgabetasuna dira egungo gazte belaunaldiaren marka eta horrek badu eraginik politikarekiko interesean eta parte hartzean. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013an egindako ikerketa batetatik (Jóvenes y diversidad en el territorio histórico de Gipuzkoa. Mapas, itinerarios, discursos e identidades) honako datua azpimarratzen du: “2012An EAEko gazteen %70ek adierazten zuen

politikarekiko interesik eza edo interes txikia. 2009an, berriz interesik agertzen ez zuen gazteen ehunekoak %64tik %81era egiten du jauzi.”

Gazte belaunaldien ezaugarriak, gazteen interesa politikarekiko eta parte hartzearen zenbatekoak esanguratsuak dira gazte mugimenduaren bilakaera aztertzerakoan. Ildo hauek nola harremantzen diren, baina, ez da hain argia. Izan ere, gazetetasun markaz haratagokoa ere bada eztabaida hau, norbanakoek izan dezaketen politikarekiko interesak eta jardun kolektiboak ez baitute zertan bat etorri. Nahiz esanguratsuak direla aitortu, euskal gazte mugimenduaren bilakaera zenbakietatik aparte aztertuko dugu, nolakotasuna delako hemen interesatzen zaiguna.

Gizarte mugimenduen teorizaziotik abiatuta iritsi gara gazte mugimenduaren identitateak eta nolakotasuna kokatzera. Baina bada ikergaian funtsezkoa den beste adiera bat, indiferentzian utzi ezinekoa, “euskal”tasuna. Gatazka politikoa edo bestelako interesak tarteko, ugariak eta anitzak izan dira bertakoek zein nazioartetik Euskal Herriari buruz idatzitakoak, anitzak ikuspegi aldetik, baita gaiei dagokionean ere. Euskal gazte mugimenduak ere eman du zeresanik, Eoin Ó Broin (2003) Irlandarrak hala idatzi zuen: “En una época en la que la juventud de toda Europa está abandonando la lucha política, Euskal Herria resulta una anomalía peculiar y en muchos aspectos, emocionante”

Gazte mugimendua modu isolatuan aztertu ezin delakoan, nazio askapen mugimenduaren ezaugarritzei erreparatuko diegu, euskal gazte mugimendua gatazka nazionalaren testuinguruan kokatuz.

## 2.3 EUSKAL NAZIO ASKAPEN MUGIMENDUA

---

Aztertzeraz goazen gazte mugimendua Euskal Herriko errealitate politikoan kokatzerakoan, garrantzitsua da Euskal Nazio Askapen Mugimenduan (ENAM) sakontzea. Euskal gazte mugimendu independentista, beste hainbat mugimendu eta eragilerekin batera proiektu politiko zabalago baten, esparru edo familia ideologiko baten baitan kokatzen da. Ezkerreko independentismoaren eremuari buruz ari gara.

Ezker abertzalea bere sorreran iraultzailea izan zen, ez bakarrik antolaketa ereduari zegokionean, baita esparru ideologiko bezala ere. Izan ere, ezkerrek ez zuen nazionalismoa onartzen, abertzaletasun tradizionalak sozialismoa onartzen ez zuen bezala. Bere oinarri ideologikoen hastapenak kokatzea ez da guztiz zehatza; dena den, Iker Casanovak (2007) ETaren historiaz idatzitako lanean jasotzen duenez, lehenik Ekin baina batik bat ETA izan zen euskal abertzaletasuna ezkerretik egitearen aitzindaria, langile mugimendua eta mugimendu abertzalea lehen aldiz borroka baten baitan uztartuko zituen. Hala ere, ENAM terminologia 80. hamarkadatik aurrera hasi zen erabiltzen. Euskal Hiztegi Politikoan horrela definitzen du Iñaki Egaña historialariak ENAM edo MLNV (Movimiento de Liberación Nacional Vasco).

MLNV: Expresión que engloba a la izquierda abertzale en su conjunto y que fue utilizada a partir de 1985, aunque entonces, bajo denominación de MVLN. Su diseño obedece a una profunda reestructuración que se abordó en esas fechas en las organizaciones que lo componen. Su explicación parecía tan obvia que no se enunció su composición. Se suponía que pertenecían al MLNV desde las organizaciones de KAS a los grupos ligados a la lucha popular o anti represiva. Pero nunca estuvieron claros los límites.

(...)Sería Herri Batasuna en 1988 quien diferenciase con más nitidez este entremado: “de una forma genérica y global, podría definirse al MLNV como la o las formas de expresión, la corriente social y política de amplios sectores del Pueblo Trabajador Vasco que persiguen, como final, la consecución de la Soberanía Nacional Plena para el conjunto de



Euskal Herria. Comités antinucleares, Gestoras pro Amnistia, AEK, Comités de Solidaridad Internacionalista, LAB, ANV, o Egin... y podríamos seguir citando todavía pléyadas de instancias organizativas que, en su conjunto, constituyen junto a Kas, y Herri Batasuna el llamado Movimiento de Liberación Nacional Vasco. (Egaña, 1996)

Iñaki Egañak argi dioen moduan, definizioa izatez lausoa da, dena den, ENAM-ek adar ezberdinetan egituratutako Ezker Abertzalea baino oinarri zabalagoak dituela ulertzen da. Hala adierazten du Jesus Casquetek (2010) ere : "el MLNV es el paraguas organizativo que aglutina el espectro nacionalista radical (...) Cuenta con ramas en el campo del feminismo, ecologismo, solidaridad internacional, la cultura vasca (...) la juventud, los estudiantes, la solidaridad con los presos y el movimiento obrero (...) Estos sectores, este Movimiento de Liberación, encuentra históricamente su expresión concreta en el conjunto de organizaciones que, desde la especificidad de cada una de ellas (en función de los campos de intervención concretos), contribuyen al avance del proceso".

Ezker abertzalea antolaketa sozial eta politikoen metaketa bat ere bada, beraz, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren (ENAM) baitan antolatua. Bere antolaketaren konplexutasunak ezaugarritzen du, mugimendu ezberdinez osaturiko familiaren zabaltasuna.

El seno de espacio social que se autodefine como "izquierda abertzale", confluyen personas y grupos que, con un grado de sujeción o "parentesco" más o menos formalizado, se ubican en unos parámetros de contestación al sistema – nacionales, sociales, culturales–, que definen su identidad colectiva. El MLNV, como conglomerado de organizaciones sociales, se constituye en una familia de movimientos, que sobre la base de una sintonía ideológica y reivindicativa evidentes – liberación nacional y social de Euskal Herria–, desarrolla un conjunto diverso y a veces contradictorio de acciones colectivas de protesta. (Zubiaga)

Familia politikoaren aterkia zabala da eta aterkipe horretan kokatuko genuke gazte mugimendu independentista. Dena den, definizioaren

hertsitasun ezak hainbat xehetasun zaildu ditzake, euskal gazte mugimendua espresuki ezker abertzalearen baitan kokatzen diren antolakundeak baino zabalagoa izan delako. Momentu bakoitzean nazio mailan zein herrietako edo maila lokaleko harremanak ezberdinak izan dira gazte mugimenduaren baitan ere. Gaztetxe eta gazte asanbladak, talde autonomoak, irrati libreak, punk edo rock erradikaleko musika taldeak...

Las relaciones entre las emergentes culturas juveniles y el MLNV fueron complejas y en permanente evolución. Hay muchas experiencias de aquella época pero lo cierto es que las relaciones estuvieron inicialmente llenas de antagonismo y bajo el peso de la sospecha mutua. (Ó Broin, 2003: 213)

Behin harremanen, eragileen norabidearen eta kultura politikoaren gora beherak eta konplexutasunak onartuta, hurrengo urratsa euskal gazte mugimendu independentistaren historiari erreparatzea izango da. Horretarako modu ezberdinetan baina ezker abertzalearen baitan kokatu diren gazte antolakundeak erreferentziatzat hartuz.

## 2.4 LAU HAMARKADA DAUDE JARRAI-TIK ERNAI-RA

---

Euskal Herriko gazteek protagonismo nabaria izan dute ENAMen hasieratan nahiz garapenean. Mugimendu abertzale eta ezkertiarren sorrera Ekin gazte mugimenduarekin batera hasi ei da, Hego Euskal Herrian 1952. urtean kontsolidatu zen ikasle taldea (Iraola 2003: 13). ETAren sortzaileen aurrekaria izan zen Ekin, identitate euskalduna promozionatzeko ikasleen foroa; ETA, berriz, Euskal Herriaren independentzia lortu eta geroago sozialistatzat izendatuko duten gizarte eredu justuago bat borrokatzeko helburuarekin sortuko du gazte talde batek (Casanova 2007: 15).

Gazteak mugimendu abertzale berriaren abangoardia ziren, gazte mugimendua izan gabe. Beren ideia zein helburuak orokorrak ziren, Euskal Herriaren eta Euskal Herritarren beharren arabekoak, eta ez euskal nazioaren baitako gazteak oinarri eta helburu zituztenak (Ó Broin 2003: 157). Eoin Ó Broin irlandarrak EAJ-PNV, Ekin eta ETA jartzen ditu adibidetzat: "la gente joven implicada en las mil y una nuevas organizaciones y campañas de aquel tiempo eran la vanguardia de la nación, y como tal, su identidad específica, sus preocupaciones y necesidades estaban supeditas a las exigencias más inmediatas de la mayoría". KAS-en (Koordinadora Abertzale Sozialista) baitan emandako hausnarketetan gazte antolakunde baten beharra identifikatu zuten.

### **JARRAI**

EGAM (Euskadiko Gazteria Abertzaleen Mugimendua) eta GAI (Gazte Abertzale Iraultzaileak) antolakundeekin egindako saiakeren ondoren, Jarrai 1979. urtean sortu zen gazte antolakunde abertzale eta sozialista moduan.

JARRAI: organización juvenil vasca encuadrada en KAS. Su nacimiento se produjo con motivo de los debates producidos en 1978 en el seno de KAS sobre la necesidad de una organización juvenil de nuevo cuño, que marcara la diferencia con las dos existentes entonces dentro de la

izquierda abertzale: EGAM y GAI. El proyecto tomo cuerpo con el nombre de Juventudes KAS que definitivamente se convirtieron en Jarrai en abril de 1979 tras celebrar su asamblea fundacional en Leioa. En su presentación anunciaron el surgimiento de Jarrai como organización juvenil, abertzale y socialista. (Egaña, 1996)

Euskal gazteriaren abangoardia izateko borondatez eratu zuten Jarrai. Euskal nazionalismoaren eta prozesu politikoaren baitan gazteek euren esparru berezitua izan zezaten, modu horretan beren jardun politikoaren jabe izateko. Helburua ez zen EGI-ren bertsio iraultzaile bat sortzea, independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokan paper aktiboa izan, eta gazteriak beren jarduna kontrolatzeko erakunde bat izatea baizik (Ó Broin 2004: 160).

Dena den, hasieratan behintzat, militantziaren adina zen Jarrai ezker abertzaleko beste antolakundeetatik bereizten zuen ezaugarri nagusia. Txema Matanzas Jarraiko militante izanak hala iradoki ei zuen: “en aquellos años Jarrai no era realmente una organización juvenil. Era la rama juvenil de una organización nacional.”

Jarrairen kultura politikoa eta antolaketa eredua ez zen apenas beste antolakundeetatik ezberdintzen, beraz, borrokaren eta konpromisoaren ulerkerak militantzia eredu guztiz zurruna eta diziplinatua behartzen zuen. Bitartean, 80. hamarkadan garatzen ari ziren mugimendu politiko anitzen artean, bestelako kultura politiko bat hedatzen hasi zen Euskal Herriko gazteen artean.

La juventud de Euskal Herria estaba reclamando espacios propios, explorando su identidad, desarrollando sus capacidades y mezclando formas culturales tradicionales vascas con nuevos elementos tomados de las culturas populares de otros países. Cuatro de las formas más fuertes eran las Gazte Asanbladas, los gatzetxes, las radios libres y el rock radical. Estas expresiones tuvieron una profunda influencia sobre Jarrai y toda la Izquierda Abertzale. Si bien la relación no siempre fue amistosa, el resultado de esta relación fue crucial para la evolución futura del movimiento independentista. (Ó Broin 2004, 163)

Antolaketa eredu eta militantziarekiko konpromiso diziplinatuaz gain, hainbat gaiaren inguruan ere posizio kontrajarriak izan zituen Jarraik beste mugimendu batzuekiko. Drogen kontsumoaren gainean gazte libertarioekiko, edo Espainiako zerbitzu militarren inguruan geroz eta indar gehiago zuen mugimendu intsumiso zein antimilitaristarekiko, adibidez. Hortik Jarrairen baitan egon diren eztabaidak izan dira, KASen baitan kokatu edo gazte problematika ardatz nagusizat hartzea, edo eredu militarista eta asanblearioaren arteko dialektikaz mintzo dira Tximeletak: etengabeko metamorfosia (15. minututik) dokumentalean.

Euskal Herriko gazteriaren erreferentzia izan eta gazte mugimenduan hegemoniko izatekotan, gazteriaren beharrak identifikatu eta bere borrokan barneratzeko beharraz jabetzen da Jarrai. Bide horretan, borroka nazionala alboratu gabe. Gainera, Euskal Herriaren nazio markoan kokatuz Jarrairen jarduna Euskal Herriaren hegoaldean kokatu eta bertara mugatzen da, hutsune hau gabezia estrategikotzat hartuko delarik.

Ipar Euskal Herrian, bitartean, 1986. urtean ernaldu zen **Patxa** gazte kolektibo abertzale eta ezkertiar bezala. 90. hamarkadan Oldartzen kolektiboarekin elkarlanean beste zeregin batzuetan murgildu ondoren, Ipar Euskal Herriko gazte belaunaldi berriak **Gazteriak** sortu zuen 1995ean, Frantziar Estatuko hauteskundearen testuinguruan, ezker abertzalearen baitako gazte antolakunde sozialista moduan. Ipar Euskal Herriko gazteriaren erreferentzia izateko asmoz jaio zen Gazteriak.

Ó Broinek egindako elkarrizketa batean Xabi Duhalde Gazteriak eratzailleetako batek hala azaltzen du sorrera eta kokapena "se decidió que Gazteriak sería un grupo con base en el norte de Euskal Herria, cuya función principal sería trabajar los temas y problemas que afectaban a la juventud. Nuestra referencia política sería la coalición nacionalista Abertzale Batasuna y, por lo tanto, trabajaríamos en la creencia de la necesidad de reunificar Euskal Herria"

Jarrai eta Gazteriaren arteko harremanak estrategikoak direla ulertuz, elkarlana sustatu eta modu bateratuan ekimen ezberdinak aurrera eramaten hasi ziren. Kultura militantea ezberdina zen bidasoaren bi aldeetan, baina nazio mailako eragile baten beharrak hurrengo urratsa ematera animatu zituen. Izan ere, "nola gauzatu estrategia nazional eraginkor bat eragile nazional bat gabe?" (Ibon Meñika, Tximeletak: etengabeko metamorfosia, 0:45)

## **HAIKA**

Jarrai eta Gazteriak erakundearen elkartzearen eraginez 2000. urtean Kanbon elkarlanean antolatu zuten Gazte Topagunean aurkeztu zuten Haika, gazte erakunde sozialista eta abertzalea. Horrela, iparraldearen eta hegoaldearen arteko bereizketa gainditu asmo zuten.

Erakundearen izena eta logoa aurkeztu zituzten Gazte Topaguneko ekitaldi politikoan, baina bere jardunaren norabidea eztabaidatzeko zegoen: "como ésta era verdaderamente una nueva organización, sus estructuras, prioridades y políticas no podían estar decididas de antemano. En realidad, lo único que existía era un nombre, una amplia definición y un cuerpo militante experimentado con la determinación de que el nuevo proyecto saliera adelante." (2003:199).

Beraz, lehen zeregina Amaiur izenez ezagutuko zen eztabaida prozesua diseinatzea zen, erakundearen nolakotasuna eta helburuak definituz, jardun politikoari hasiera emateko. Eztabaidagai zeuden dokumentuetan globalizazioa, neoliberalismoa, Euskal Herriaren egoera politikoa, euskal gazteriaren arazoak eta Haikaren egitura eta identitatea bezalako arloak izango zituzten hizpide. Amaiur prozesuan ateratako ondorioak lehen 2001eko lehen ekimen nazionalen emango zituzten aditzera, Haika euskal gazteriarentzat tresna eraginkor bat izatea zen

erronka nagusia. Matxinada libururako egindako elkarrizketan, Arturo Villanuevaren hitzek hala adierazten zuten “queremos desarrollar una estrategia nacional, activa a nivel local y nacional, dirigida a superar las fronteras físicas y psicológicas artificiales que nos imponen como individuos y como nación”.

Gainera, Jarrairen zurruntasuna ere aldatu nahiko zuten, antolaketa ereduari buelta bat emanaz:

Haikak, Jarrairen hainbat autokritika bere eginez, “koadro” antolakunde izateari utzi eta koadro eta masa antolakunde izatera pasako da, antolakundea baino mugimendu bezala definitu nahiago duelarik. Nazio Eraikuntza eta gazte mugimendua lehentasun bihurtzeko egituraketa bultzatuko zen, epe ertainean fruitu izugarriak emango zituen estrategia. (Ernairen liburuxka, Ezker Abertzalearen bilakaera)

Haikaren jarduna, dena den, ez zen asko luzatu. 2001ean Baltasar Garzon epaileak ETA erakundearen “kantera”, beraz, ETAREN egituraren parte zela erdietsiz legez kanporatu zuen Haika Espainiar estatuan. Legez kanporatzearen ondoren “Gazte Bilgunea” izeneko dinamika jarri zuten martxan, zeinaren ondoren hurrengo gazte antolakundea aurkeztuko zen.

## **SEGI**

Haika legez kanporatu zuteneko testuinguru berdintsuan sortu zen, beraz, Segi antolakundea. Aurkezpen ofiziala 2001eko ekainaren 16an egin zuen Iruñean, ezker abertzaleko gazte antolakunde moduan, Euskal Herriko independentzia eta sozialismoa aldarri.

Gazte antolakundea bere militantzia gaztea izateaz gain, Euskal herriko gazteriarren problematikak landu, borrokatu eta alternatibak eraiki asmo zituelako; Segiren proiektu politikoarekin bat egiten zutenak baino gehiago, Euskal Herriko gazte guztien mesedetan lan eginaz. Horretarako,

gazteriaren arazoak jendarte guztiarenak bilakatzea eta Euskal Herriaren askapen prozesuan kolektibo berezitua izatea ziren gakoak.

Euskal Herriko erakunde independentista izaki, herri zabaleko errealitate ezberdinak kontuan hartuz, auzoetan, herrietan, hirietan eta eskualdetan egiten zuen lan Segik, mugen gainetik lan hori maila nazionalen koordinatuz. Jarduera independentista, berriz, Euskal Herriaren biziraupenerako ezinbesteko baldintza herriaren askatasuna izaki, independentzia beharrezkoa delakoan justifikatzen du (DVD Kaiolatik at, 2005) .

Gazte antolakunde sozialista eta iraultzailea, hala definitu ei zuen Segik bere izatea, wikipediaren arabera:

Segik jendarte eredu berri baten aldeko apustua egiten du. Sistema kapitalistaren atzaparretatik kanpo egongo den gizarte baten eraikuntzan lan egiten du Segik. Ama lurraren defentsa, elkartasuna, sexu askatasuna, parekidetasuna eta ondasunen banaketa lantzen dugu egunez egun. Gure herriaren independentzia borrokatzen dugun bezala, herritarren independentzia pertsonala ere borrokatzen dugu. Ez dago herritar askerik gabeko herri askerik. Segik herrien arteko harremana eta elkartasuna bultzatu nahi du. Nazio eta jendarte askapen borrokan dauden herriekin bat egiten du gazte erakundeak. Munduko iraultzei Euskal Herriak egin diezaiekeen ekarpenik handiena Independentzia eta Sozialismoa lortzea da. (Wikipedia, Segiren autodefinizioaz)

Horrez gain, internazionalistatzat, euskaltzalezat eta feministatzat ere badu bere burua Segik. Internazionalismoa eta feminismoa, dena den, sozialismoaren baitan ulertzen ditu, herri zapalduen arteko aliantzak landu eta herrialde ezberdinen errealitateen formakuntzak eskaintzeaz arduratu izan da. Emakume gazteek pairatu zapalkuntzei aurre egiteko, parekidetasunean oinarritutako gizarte eredu aldarrikatzen du.

Gazte antolakundearen (antolakunde guztiena, oro har) praktika, dena den, auto definiziotik aldendu izan da, egoera koiunturalak, inertziak, kultura politikoa eta benetako lehentasunak tarteko, besteak beste. Horrek



ez du esan nahi, oinarri ideologikoaren definizioek garrantzirik ez dutenik, borondate baten adiera behintzat badira eta.

Gazte mugimenduaren jarduera errepresioak baldintzatu duela esatea ez da inolaz ere berria. Fermin Muguruzanen hitzetan "obsesio bat egon da errepresioaren aldetik, eta hori gazteria izan da" (DVD, Tximeletak: etengabeko metamorfosia). Segiren kasuan baina, errepresioak ondorio zuzen bat izan du, jardun militantearen klandestinitatea.

2001eko ekainean izan bazen sorrera ekitaldia, 2002ko otsailerako Espainiako Audientzia Nazionalaren epai batek legez kanpo utzi zuen Hego Euskal Herrian Segi. Baltasar Garzon epailearen aginduz, Segi Jarrai eta Haikaren ondorengoa zela, beraz, ETAREN helburu berak jarraitzen zituela argudiatuz. Legez kanporatzearekin nahikoa ez eta, 2007ko urtarrilean Espainiako Auzitegi Gorenak Segi erakundea terrorista zela deklaratu zuen. Segiko kide izatea 6 urteko espetxealdia izan zitekeen sistema juridiko espainiarrean. Bitartean, Frantziar Estatuan izaera legala mantentzen zuen Segik, nahiz oztopoak pairatu behar izaten zituzten (Amaia Elixiri, DVD Tximeletak: etengabeko metamorfosia).

Jardun politikoa eta erakundearen izaera bera baldintzatu zituen, beraz, errepresioak. Izan ere: "nola izan erakunde zabal, anitz, gazte erreferentzia jasoko zuena, alaia, borrokalaria, irekia... eta terrorista!" (Jon Telleria, DVD Tximeletak: etengabeko metamorfosia)

Jarduera publikoak beste izenpe batzuekin burutzen jarraitzen bazuen ere (Gazte Independentistak, tokiko gazte mugimendua...) geroz eta zailagoa zen Segiretzat aurrera egitea. Gainera, Zutik Euskal Herria ebazpenean aurkeztutako estrategia aldaketaren ondoren emandako ziklo berriaren hasierarekin ENAMen baitan beharrezkotzat kontsidera zitekeen gazte antolakunde legal bat.

Hala, 2012ko ekainaren 15ean Gara eta Berria egunkarietan egindako elkarrizketa batean berretsi zuten Segiko kideek gazte antolakundea desgiteko hartutako erabakia. Besteak beste, sorreran hartutako estrategiak bereak eman izanaz, errepresioaren eta ilegalizazioaren

eraginez, azken urteetako jardunean izandako ikuspegi estrategikoaren gabeziak, eta euskal herriko gazteriarekiko markatu nahi ez zen distantziak idatzi zuten. Gazte antolakundea desegin izanak ez zekarren, baina, gazteriaren arazoak gaindituztat ematea. Beraz, gazte mugimenduan borrokan jarraitzeko konpromisoan berretsi ziren militante gazteak:

«Berez, hausnarketa 2009an hasi zen, baina erabakiak azken urtean mamitu dira. Gogoeta oso sakona eta autokritikoa izan da. 2002an zehaztutako estrategia bere mugak jotzen hasia zela, ikuspegi estrategikoa bera galdua genuela eta etengabe erantzun dinamikan sartuak ginela ohartu ginen. Horrek guztiak, nolabait, Segiren eta gazteriaren artean amildegi bat sortu du, eta erakundeak bere helburuak ez dituela betetzen egiaztatu dugu. Agortutako tresna da»  
Amaia Elixiri (2012 ekainak 15, Gara)

“Gazte strategiaren hausnarketarekin batera, ezker abertzalearen estrategia berria iritsi delarik, guk gazte bezala ere gure erronken, helburuen, problematiken eta egoeren birkokatze edo birdefinitze bat egin behar genuen. Guretzat Segi hestea ez da, inolaz ere, porrot bat. Bere ibilbidea bukatu da behar zuena egin duelako, ongi edo gaizki, akatsekin eta lorpenekin. Beraz, naturaltasunez iritsi den ondorio bat da”  
Txomin Catalogne (2012 ekainak 15, Gara)

Segiren desegitearen ondoren, 2012ko irailean bertan aurkeztu zuten Zarautzen hurrengo gazte antolakundea sortzeko helburua zuen Gazte ZukGua, prozesu eratzailea. Hasieratik, fruta ezberdinen estetika eta kolorez, gazteak ZUtik GURako pausoa ematera animatu nahi zituena.

## **ERNAI**

Ziklo politiko berriaren baitan Ezker Abertzalea berregituratzen ari dela aprobetxatuz, 2013ko martxoan ehunka gaztek Lizarran ospatutako

lehen kongresuan aurkeztuko dute Ernai: Euskal Herriko gazte antolakunde independentista, sozialista, feminista eta iraultzailea. Ezker Abertzalearen baitan kokatuz, LAB sindikatuarekin eta Sortu alderdiarekin batera, ezker abertzalearen antolaketa berriko ataletako bat izango da Ernai.

2012ko ikasturtearen hasieran, gazte mugimendu ezberdinetatik etorritako hainbat gaztek "Gazte ZukGua, norbanakotik kolektibora" prozesua jarri zuten martxan, orotara 3000 baino gazte gehiagok parte hartuko zuten prozesu eratzailan. Eztabaida ugariren artean, azkenean 2013ko martxoaren lehenean Lizarran, Ernai gazte antolakundea sortuko da.

Berritasun nagusiak feminismoa helburu estrategikoen barruan sartzea izango da, edota gazte mugimenduarekin eduki beharreko papera birdefinitzea. Ernai, Hego Euskal Herrian soilik antolatuko da, Ipar Euskal Herrian Aitzina gazte antolakundea sortuko delarik. Hegoaldean jende gutxik ulertuko du antolakundea nazionala ez izatea, baina Ipar Euskal Herriko errealitatea kontuan hartuta, bertako erritmo eta lan estiloetara egokituriko antolakunde propio baten beharra argia zen. Denborarekin erabakia ulertzen joango da, kontraesanak kontraesan (Ernairen liburuxka, Ezker Abertzalearen historia: 124)

Segi antolakundea Euskal Herriko zazpi probintzietan antolatzetik, hegoaldean egituratutako erakunde bat izaterako erabakiak hautsak harrotu zituen hasieran, naziogintzaren baitako atzerapauso bat bezala ikusten baitzen militanteen artean. Dena den, Segi erakunde nazionala izateak ez zuen koordinazioa eta errealitate denei erreparatzea bermatzen, gehienetan hegoaldeko dinamikak nagusitzen baitziren. Nazio perspektiba duen hegoaldeko erakunde gisan jaiotzen da beraz, Ernai, tokiko borrokek lehenetsi, koordinazioa bermatu eta Ipar Euskal Herriko gazteriarekin aliantza estrategikoak jorratu asmoz:

Ernaien oinarria herrietan ezarri dugu, bere egituraketa guztia herrien mesedetara eraikiz. Hau hala izanik, antolakuntza eredu garrantzi berezia dute eskualdeek, herrien arteko harremana sustatu eta borroka

komunak koordinatuz. Ernairen baitan Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gazteak biltzen dira, perspektiba eta estrategia nazionala izan arren. Horrez gain, Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdiko gazteekin harreman iraunkor eta zuzena dugu. (Ernai, web orritik).

Segiren desegiteak iparraldean utziko zuen hutsunearen aurrean, eta ezkerrekoa eta abertzalea izango zen gazte antolakunde erreferentzial baten faltan, 2013ko azaroan aurkeztu zuten Baionan **Aitzina!** : Ipar Euskal Herriko gazte ezkertiar eta abertzaleen antolakundea da. Abertzaletasuna eta ezker politikoa hartuz, ildo nagusitzat. Abertzaletasunaren baitan hizkuntza, identitatea eta lurraldetasunaren elementuak hartzen dira. Ezkertiaritasunean, berriz, antikapitalismoa, ekologismoa eta feminismoa (Aitzina!, web orritik). Aitzina! eta Ernaik beren harremanak aliantza estrategikotzat dituzte, eta elkarlanean burutu dituzte hainbat ekimen. Tartean, lan honetan aztergai izango ditugun Gazte Topagune, edo kasu honetan Gazte Danbada ekitaldiak.

Ernaik bere burua Euskal Estatu Sozialista eta Feminista borrokatzeko tresnatzat definitzen du. Bide horretan, bigarren aldaketa nagusia feminismoak gazte antolakundearen baitan hartzen duen garrantzia litzateke. Segi parekidetasuna helburu eta balore feministak aldarrikatzen dituen antolakundea izatetik, Ernai, feminismoa helburu estrategikotzat hartzen duen antolakunde batetara. Feminismoa baina, antolakundearen abizen hutsa baino zerbait gehiago izatekotan, beharrezkoa izango da militantziak kontzientzia eta praktika feministak izatea (Ernairen liburuxkak, urrats feminista). Gabezia horretaz konstante izaki, lau urtetako prozesu feminista jarri zuen martxan Ernaik, eztabaida eta ardura eremu mistora zabalduz.

2013an aurkezpena egin zuenetik hona, nolabaiteko erreferentzialtasuna eta egonkortasuna lortu ditu Ernaik. Auzo, herri, eskualde edo probintziaren arabera errealitatea aldakorra bada ere, nazio mailako ekimenek arrakasta dute, eta bozeramaile ezberdinek errekonozimendua. Zuzenean Ernairekin lotu ezin bada ere, ENAMen baitan eta euskal gizartean, oro har, **Libre** epaiketa politikoen aurkako

mugimenduak indar handia erakutsi du. Epaiketa politiko hauetako asko euskal gazteen aurkakoak izaki. Irudimenez eta laranja kolorez, elkartasunetik konpromisorako saltoa irudikatu izan du, ziklo berriaren baitako mobilizazio eredu berritzaileak garatzen hasiz, desobedientziaren bidetik.

Antolakundez antolakundeko ibilbide honetan ikusi dugun moduan, gazte mugimendua eta bere baitako eragileak momentuko behar eta errealitatera egokitzen saiatu izan dira.

Con sus aciertos y deficiencias, aportaciones y contradicciones, avances y retrocesos, este movimiento juvenil construye alternativas concretas (en principio sectoriales) que proyectan un modelo de sociedad diferente al realmente existetne, defendiendo una convivencia armoniosa entre las personas, los pueblos y la naturaleza. Justicia social. Empleo digno. Vivienda. Euskara. Diversidad cultural. Autodeterminación. Soberanía. Democracia. Autogestión. Independencia. Convivencia. Paz. Igualdad. Libertad. Solidaridad.

(...) Un movimiento en si mismo dinámico y dialectico. Con pasado, presente y futuro. Con teoría y praxis. Crítica y también autocrítica. Reflexión y acción, resistente a la vez que constructivo. Sentimientos milenarios e ideas innovadoras. Dinámicas sectoriales y aspiraciones de cambios globales. Mestizaje y rasgos culturales propios. Compromiso y fiesta. Dosis de espontaneidad y cultura organizativa. Organización real y virtual. Con creciente forma de red. (Loiola Idiakez, A, 2009: 561-562)

Aldaketa horren erakusle izan dira antolakunde batetik besterako aldaketak eta hori bera aztertu asmo dugu Gazte Topaguneei erreparatuz. Hurrengo lerroetan Gazte Topagunearen definizio bat ematen saiatuko gara.

## 2.5 GAZTE TOPAGUNEAK

---

Gizarte mugimenduek oro har, eta gazte antolakunde ezberdinek konkretuki mahai ganean izan ohi dituzten galderak dira honakoak: Nola egin mugimendu bat erakargarri? Nola engaiatu herritarrak borrokara? Nola zabaldu mezua, lortu sektore baten baitako hegemonia? Ziurrenik, mahai inguruko hausnarketa-eztabaidaren baten inguruan sortu zen Gazte Topagunearen ideia, hasieratik galdera hauei erantzun asmo izango ziona.

Zail suerta daiteke ENAMen berririk ez duen norbaiti Gazte Topagune bat zer den azaltzen, musika festibal bat baino zerbait gehiago, bilkura esplizituki politiko bat izatera iritsi gabe. Euskal Herriko gazte ezkertiar eta abertzaleen artean zentralitatea eta erreferentzialtasuna lortu duen ekimen edo bilkura bat dela esanez definitu daiteke Gazte Topagunea. Mobilizazio handiak dira finean Gazte Topaguneak, gazteek, euren artean antolatu eta koordinatuz, gazteen beharrak kontuan hartu eta gazteentzako ekimenez osatutako mobilizazioak, egun bat baino gehiago irauten dutenak. Hortik aurrera edizioz edizio ekimen ezberdinak barnebiltzen dira: kontzertuak, hitzaldiak, eztabaidak, kultur adierazpen ezberdinak, aldarrikapenak... hainbat eta hainbat elementu aurkitu ditzakegu, jaia borrokarekin eta formakuntzarekin uztartuz, batzuk finkoak, besteak aldakorrak, baina konglomeratu moduan Topagune bezala izendatuak izan diren mobilizazioak osatzen dituztenak.

Gazte mugimendu iraultzailearen historia aztertzean, modu honetan azaltzen du Ó Broin-ek lehen Topagunearen zergatia eta nolakotasuna.

El hacer de Jarrai más atractivo significaba crear nuevas formas de actividad política y combinar prácticas más tradicionales con las formas culturales predominantes en el propio movimiento juvenil. Jarrai hizo esto mediante la organización de eventos espectaculares, empezando en 1994 con el Gazte Topagune. La del Topagune era una idea simple, pero que encapsulaba gran parte del contenido del V congreso. El acontecimiento era un festival con una acampada de fin de semana, durante el cual se organizaba un amplio abanico de eventos políticos, sociales, culturales y populares. Acogía a todas las fuerzas y espacios

juveniles radicales de Euskal Herria durante tres días para que interactuaran, exploraran y celebraran las realidades múltiples que conforman la cultura juvenil vasca. Los actos políticos incluían debates, charlas, clases de formación, manifestaciones y ventas de publicaciones. El contenido cultural combinaba actividades folclóricas tradicionales con diversas expresiones artísticas: teatro, música, danza, deporte, cine, etc.

Entremezclando todo esto había puestos y espacios para que diferentes organizaciones y campañas pudieran vender su material o explicar sus posiciones. El acto central del Topagune fue un mitin político masivo en el que Jarrai utilizó tecnología multimedia punta para presentar su propio análisis de la situación a la que se enfrentaba la juventud vasca.

El Gazte Topagune, como su propio nombre indica, es un encuentro de gente joven, para gente joven, acerca de gente joven y organizado por gente joven. Fue diseñado como ejemplo de nuevo Jarrai en acción, hilvanando los temas centrales del V Congreso en un acontecimiento masivo. En 1994, el año del primer Topagune, 10.000 jóvenes convergieron en el pequeño pueblo de Etxarri Aranatz, demostrando el éxito de la nueva visión que Jarrai tenía de sí misma y de los movimientos juveniles. (Ó Broin, 2003: 191)

Aurreikus zitekeenaz haratago, lehen edizioaren arrakastak urtez urte egonkortzen joango zen ohitura bati irekiko zion bide. 1994az geroztik ia udaberriro antolatu izan da euskal gazte abertzale eta ezkertiarren nazio mailako mobilizazioen bat, euskal gazteriaren erreferentzialtasuna lortuko zuten gazte ekimenak, Aberri Egunaren bueltan ospatuko zirenak. Gazte Topaguneak eta Gazte Martxak, modu ezberdinetako parte hartzea bilatuz, baina gazte antolakundeak euskal gazteriarentzat antolaturiko mobilizazioak izan dira.

Gazte Topaguneak, Euskal Herriko zonalde geografikoz aldatuz, baina herri batean egindako kanpaldia eta jaialdi masiboak izan dira; Gazte Martxak, berriz, bi herriren arteko mendi ibilaldiak, Euskal Herriaren eta gazteen arteko ezagutza beste nolabait sustatu asmo izan dutenak. Testuinguruak baldintzatuta, kanpaldi edo martxarik egin ez den urteak ere

izan dira. Batzuk zein besteak, ikerketarako interesa piztu dezakete gaiak izan dira, baina programazio aldetik mamitsuagoak direlakoan Gazte Topaguneak bihurtu ditugu proiektu honen azterketa objektu.

Edizioz edizio formatua ez da egonkorra izan, ezta luzapena, helburu espezifikoak, leloa edo estetika ere, baina egon dira mantendutako elementuak ere, Gazte Topagunearen izatea bera, mobilizazioaren erreferentzialtasuna. Lan honen bidez, beraz, edizio bakoitzean mobilizazio handi hauei emandako ezaugarritzea eta batetik bestera emandako berrikuntzak edo aldaketak garaiko koiuntura politikoarekin uztartzen saiatuko gara. Modu horretan euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera aztertuz.



### 3. DISEINU METODOLOGIKOA

---

Euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera aztertzea da lan honi esleitu diogun helburua. Mugimendu baten bilakaera aztertzerakoan adiera ezberdinak baliatu daitezke: antolaketa ereduak, diskurtsoak, lantzen diren alorrak, antolaturiko mobilizazioak, estetika e.a. luze bat. Horren guztiaren adierazgarri, eta euskal gazteriarentzat nahikoa erreferentzia duten ekimenak direlakoan, interesgarria iruditu zaigu bilakaera hori Gazte Topaguneak aztertuz jasotzea.

Orain artean literatura akademikoari erreparatu eta ikerketa kokatzeko beharrezkoak iruditutako kontzeptuen inguruan aritu gara, gizarte mugimenduetatik abiatu eta gazte mugimenduaren identitate eta nolakotasunera. Horrez gain, euskal gazte mugimendua kokatu asmoz, Euskal Nazio Askapen Mugimendua definitu dugu, baita antolakunde ezberdinen bidez, gazte mugimenduaren bilakaera historikoa jaso ere. Bilakaera horren nolakotasuna Gazte Topaguneekin lotzea denez asmoa, lehen Gazte Topagunearen ideia nondik eratorria den jasotzea beharrezkotzat jo da.

Orain, proposaturiko ikergaia aztertu eta hipotesiei erantzuna bilatze bidean erabiliko den metodologiaren diseinua gauzatuko dugu, izan ere, asko izan daitezke gai berdina aztertzeko modu eta bideak. Kasu honetan, analisia burutzeko erabiliko ditugun bideak, metodologia kualitatiboan baitan kokatuak izango dira.

Iragana aztertzeko bide egokiak izateaz gain, material ez egituratua ikertzea onartzen duenez (Juaristi, 2003: 219), edukien azterketa izango da ikerketa burutzeko erabiliko dugun teknika nagusia. Teknika honen bidez, analizatu asmo ditugun datuen edukiak bere horretan mantendu eta onartu genitzake, ikerlearen inolako esku sartzerik gabe. Gainera, eduki azterketaren teknika erabiliz errealitate sozialaren irakurketa, dokumentuen analisiaren bidez bidera daiteke:

«...el análisis de contenido es una técnica de investigación que consiste en el análisis de la realidad social a través de la observación y del

análisis de los documentos que se crean o producen en el seno de una o varias sociedades. Lo característico del análisis de contenido, y lo que le distingue de otras técnicas de investigación sociológica, es que se trata de una técnica que combina intrincadamente, y de ahí su complejidad, la observación y el análisis documental». (Lopez Aranguren, 1989)

Eduki azterketa, beraz, testu edo dokumentu batetatik balizko inferentziak ateratzeko prozedura desberdinak erabiltzen dituen ikerketa teknika da (Juaristi, 2003: 215). Teknika hau baliatuz, gizarteko elkarreraginetan sortzen den material komunikatzailea azter genezake, horrek errealitate sozialera gerturapen bat egin eta dokumentuen testuingurua kontuan hartuz, bere esanahi sinbolikoa aztertzea ahalbidetzen digu.

Ikerketa guztiek izan ei dituzte beren behar, oztopo, zailtasun eta berezitasunak. Eta teknika honek ere, baditu bere desabantailak. Iraganeko artxiboak aztertu asmo direnean, ez da erraz suertatzen horiek modu sistematiko eta antolatuan bilatzen, eta eskuratzea lortzen den dokumentazioak zein bere kalitateak, ikerketaren nolakotasuna baldintzatzen dute.

Ikerketa honen kasuan, Gazte Topaguneei buruzko informazioa bilatu asmoz internetera eta hemerroteketara jo dugu lehenbizi. Gazte Antolakunde ezberdinen eta hainbat komunikabideren legez kanporatzeak, baina, hainbat informazio sarean ez egotea ekarri du. Horrez gain, jakina da komunikazio moduak aldatzen joan direla, horren arabera momentu bakoitzean erabilitako euskarriak ere aldatu direlarik. Sarearen bidetik informazio baliagarri asko lortu daiteke: argazkiak, antolatzaileen elkarrizketak, kronikak, geroz eta gehiago ikus entzunezko baliabideak e.a. Edizio baten inguruan aurki daitekeen informazioa, baina, ez dago erabilgarri beste edizio batzuentzat, eta horrek bilakaeraren azterketa zailtzen du. Dena den, informazio guzti hori osagarria izango da eta baliagarria izango zaigu analisirako.

Oinarrizko euskarritzat baliatuko duguna, beraz, programazioa eta ekimenaren informazioa ematen duten esku-orriak izango dira. Hainbat

kontsulta ezberdin egin ondoren dokumentu hauek lortzeko, Lazkaoko Benediktinoen Artxibategira jo dugu. Dokumentazio honen baitan ere badaude, baina, beren zailtasunak, edizio bakoitzeko formatuak eta edukiak ezberdinak baitira. Dena den, analisiaren funtsa euskarri hauetan oinarritzea baloratu da aukerarik egokiena, ene iritziz, aldaketa horiek ere esanguratsuak baitira, testuinguruari eta momentuko gazte mugimenduaren ezaugarritzeari lotuak.

Lazkaoko Artxibategian programazio gehienak ahalbidetu dizkigute, lehen edizioetakoak eta azken Gazte Danbadetakoak (2013az geroztiko Topaguneek hartu duten izena) izan ezik. Lehen Gazte Topagunea 1994an antolatu zen Etxarri Aranazen, bigarrena 1996an Zaldibian; informazio gabeziagatik bi edizio hauek analisitik kanpo utziko ditugu. Lehen Gazte Danbada, berriz, Urduñan izan zen 2013an, eta azkena 2016an Laudion; edizio hauen kasuan eskuorriak bide pribatuetatik lortu ditugu, hala, analisisan barneratu ahal izango ditugu. Beraz, ikerketako lehen edizioa 1998an Oiartzunen ospatua izango da eta azkena, berriz, 2016koa.

Aurrez definitu moduan, Gazte Topaguneak bi urtez behineko maiztasunak antolatu izan dira, baina koiuntura politikoa eta legez kanporatzeak tarteko, izan dira Topagunerik gabeko urteak ere. Urte horietako ekimenei ere egingo diegu aipamena; tartean 2010ean Durangon egin zen GazteHerria eta 2011an Soraluzen antolatutako Gazte Matxinsalto. Horrez gain, nahiz formatu ezberdin bat izan, formatu berritzailea izan delakoan, analisisan barneratuko dugu 2014. urtean Altsasun izan ziren Gazte Burutakzio topaketak.

Behin zer aztertuko dugun zehaztuta, edukien azterketa kualitatiboan zerri erreparatuko diogun ere finkatuko dugu. Programazioen eskuorriak Gazte Topaunera bertaratuko den orok jasotzea komeni den mezuen eta informazioaren adierazgarri direlakoan, antolatzaileek garrantzia zeri eman nahi izan dioten identifikatzen saiatuko gara. Hala, ekimen nagusiak zeintzuk izan daitezkeen, hitzaldiek zer nolako gaiak tratatzen dituzten eta nola adierazten diren, gazteriari edo beste norbaiti zuzendutako mezurik ba ote dagoen, ekimen aldarrikatzaileak dagoen eta balego zer formatutan e. a. Alegia, programazioa edizio bakoitzean gazte antolakundeak izan ditzakeen helburuen, dituen irakurketen eta beharren sinbolo izan

daitekeelakoan, hori nola islatzen den aztertuko dugu.

Gazte Topaguneak, hor nonbait, protesta edo mobilizazioak direnez, bide horretatik ere azertu ditzakegu. Izan ere, protesta ekimenak helburu bati edo gehiagori babes esplizitua eman edo kexaren bat artikulatzeko asmoz, pertsona bat baino gehiagok antolatzen dituen edonolako ekintzak izan daitezke Arkaitz Letamendiak Euskal Protesta Zikloaren inguruan idatziriko tesian gordetzen duenez (2015: 54).

Programazioek, besteak beste, jarduera errepertorioaren berri ematen digute. Edizio bakoitza eta unean uneko jarduerak testuinguru politikoan kokatuz, paradigma interpretatzailetik (Lindlof, 1995) aukeratutako dokumentuetako edukiak koiunturarekin eta bere baitako botere harremanekin elkarreaginean aztertzea litzateke gakoa. Koiuntura sozio politikoak, eta gatazka esplizituek eragin zuzena izango lukete planteamenduetan:

“Vengo planteando que el conflicto es dinamico y relacional; y que los movimientos sociales, y mas en concreto las diversas acciones de protesta que se llevan a cabo, no pueden entenderse si no somos capaces de aprehender los mecanismos de confrontación profundos que les dan pie. En este ámbito, se torna basico identificar las pautas de interacción que se establecen entre por un lado actos de reivindicación, de resistencia y de lucha; y por otro lado actuaciones punitivas y represivas de las autoridades políticas y del Estado.

(...) El grado de intensidad de la acción represiva por parte de las autoridades tiene efectos directos sobre la dinámica del conflicto, ya que, siguiendo el modelo interactivo de McAdam (1983), entre actos de protesta y acción de las autoridades existe por definicion una interacción dialectica.” (Letamendia, 2015:63)

Hortik programazioaren analisiarekin batera Gazte Topaguneko edizio bakoitza nolabait testuinguratzearen interesa, baita ekimenaren arrakasta, balorazioak e.a jasotzekoa. Hori, datu historikoez gain, komunikabideen hemerrotekak baliatuz egingo dugu. Jakin badakigu, iturri ezberdinen adierazpenak ez direla beti fidagarriak, eta hare gutxiago objektiboak. Dena den, mobilizazio sozial eta politikoak ikertzeko iturririk ohikoenak dira

komunikabideak (Koopmans eta Rucht, 2002), denbora igarota ere konparazioak egin eta tipologiak bereiztea ahalbidetzen digutelako. Bide horietatik jasotako datuek analisia testuinguratzen lagunduko digute, ezer frogatu nahi izatekotan, koiuntura sakonago aztertu beharko baitgeneuke.

Aztertzera goazen Gazte Topaguneen programak eta saretik lortutako informazio gehigarriak baditugunez, edizioz edizioz edukien azterketari hasiera emango diogu. Egindako plana proposatutako hipotesiarekin harremanduko dugu orain, gogora dezagun beraz planteaturiko hipotesi nagusia: Topagunez topagune euskal gazte mugimenduaren bilakaera nabari dezakegu, bilakaera horretan baina, alor batzuk duten garrantzia mantendu egin da (adibidez, independentismoa), eta beste batzuk aldatzen joan dira.

Azken pausua lan honetatik, eta ibilbidetik ondorioak ateratzea izango da.

---

## 4. IKERKETA

---

Proiektua azaldu eta helburuak finkatuz eman diogu hasiera ibilbideari. Kontzeptu teorikoak jorratu eta euskal gazte mugimendua Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren baitan kokatu dugu ondoren, horrela, erakunde erakunde euskal gazte mugimenduaren historia labor bat jasoaz joan gara marko teorikoa osatzen. Euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera Topagunez Topagune aztertu asmo dugunez, beharrezkotzat jo dugu berauek kokatzea ere. Ibilbide hori nola egingo dugun zehaztea izan da hurrengo pausoa, zer aztertu finkatu ondoren, bide hori nondik eta nola egin definitzea, alegia.

Prest daude helburuak, kontzeptuak, diseinu metodologikoa eta iker objektutzat finkatu dugun dokumentazioa, orain ikerketa gauzatzea dagokigu. Aurrez esanda bezala, ikerketa, batik bat, edizio bakoitzeko eskuorrietan oinarrituko da, dokumentuen kalitatea onena ez bada ere, irakurleak kronologikoki ordenatuta aurkitu ahal izango ditu eranskinen atalean.

Diseinu metodologikoan aipatu gisan, ikerketari 1998 ediziotik ekingo diogu, baina hau lehen edizioa izan ez zenez, aurreko biei apunte bana egitea interesgarria dela iruditzen zaigu. Gazte Topagunearen lehen edizioa, beraz, 1994. urtean izan zen, Etxarri Aranazen. Jarrai antolakundea erakargarriagoa egin eta bere borroka zabaldu asmoz hiru egunetako kanpaldia antolatu zuten, eta ekimen mobilizatzailea askotariko ekitaldi kultural, sozial, politiko eta herritarrez josi. Geroko edizio denetan ere presentzia garrantzitsua izango duen ekitaldi politikoa, Jarraik egoeraren analisia egin eta euskal gazteriaren erronkak aurkezteko baliatu zuten. Lehen mobilizazio handi hartan, 10. 000 gazte inguru elkartu ziren, ideia eta ekimenaren arrakasta adieraziz. 1996an Zaldibian antolaturiko bigarren Gazte Topagunea ildo beretsutik joan zen, arrakasta errepikatzean Gazte Topagunearen erreferentzialtasuna lortuz. 1998ko edizioko eskuorrian hala adierazten du Jarraik "biak esanahi sakona eduki zuten eta

erakundearen historian momentu garrantzitsuen irudi izan dira, bakoitza garai desberdinean gazte mugimenduak bizi zuen egoerari egokitua”

## **1998, OIARTZUN**

“Euskal Herriko oihartzuna, gazteok independentzia!” lemapean antolatu zuen Jarraik 1998ko Gazte Topagunea, hirugarren edizioa. Aurreko deialdien arrakasta ikusita, eskaintza zabaltzeko apustua adierazten du Jarraik, mobilizazioan euskal gazteriaren erantzuna ere zabalduko delakoan.

Bertaratuko zirenentzat prestatutako eskuorrian nabarmentzen denez: “Gazte Topaguneak eztanda bat irudikatu nahi du. Bizi dugun egoera latzaren ezabatzea ekarriko duen eztanda, inposatu zaigun errealitatea suntsitu nahi duen eztanda. Baina era berean askatasunarena, herri honen subirano bizitzeko daukan ilusioaren eztanda, elkartasunarena, eta herri honek dauzkan pontentzialitate guztien gauzatzea. Independentziaren eztanda. Oiartzunen kokatuta dagoen lehegailu honek bere metralla guztia herrietara zuzenduta dauka”.

Topagunearen helburuak adierazteaz gain “sumisioa eta menpekotasuna” besterik eskaintzen ez duten sistemari, hots, frantziar eta espainiar estatuei egiten die erreferentzia, euskal gazteriaren etsaiak argi definituz. Hala, Topagunea Euskal Herriak “jasaten” duen gatazkaren erdian kokatzen dute. Horren aurrean, Euskal Herria murgilduta dagoen eraikuntza prozesuaren baitan antolatzera eta borrokatzera deitzen dituzte gazteak. Bai maila politikoan, sozialean, ekonomikoan edo kulturean sortu beharreko eredu propioetan, herri euskaldun eta bere buruaren jabe bezala bizitzeko minimoak borrokatu, Estatuen mugen gainetik.

1998ko udaberriko testuinguruan Lizarra Garaziko negoziaketetarako mahaia eratuta legoke. Euskal preso politikoen aldeko borroka ere pil pilean dago, gainera, hilabete gutxi batzuk baitira Guardia Zibilak ETak Ortega Lara bahituta zeukaneko zuloa aurkitu zuenetik, eta ondorengo Miguel Angel Blancoren hilketatik. Gertaera hauei adierazpen zuzenik ez, baina kontestuan kokatzen du Jarraik Topagunearen zentzua: “Topaguneak

zentzu hori dauka: Euskal Herriaren proiektua gazte begietatik ikusi eta erakustea da, propio dauzkagun arazo eta bideak marratuz, herri honek eramaten duen borrokaren kontestuan. Gazte kolektiboaren indarra herri honen eraikuntzarako beharrezkoa den gasolina da”.

Nazioarteko testuinguruan eta Lizarra Garaziko mahaiaren eraketan eragina izan zuen gertakari zentral bat, IRaren armagabetzea izan zen. Horrekin lotuz, Oiartzungo Topagunean Jarrai eta Sinn Féin-eko gazteen arteko mahai inguru bat ageri da. Egitarauari dagokionean, edizio gehienetan bezala hitzaldi, eztabaida, ekimen kultural eta kirol jarduerak ageri dira, mobilizazioez gain.

Kirolak garrantzia handia hartzen duela dirudi, euskal selekzioari buruzko hitzaldiaz gain, eskalada, herri kirolak, herri omenaldiak eta hiru mendi martxa ageri dira, horietako bat eusko gudariak omentzeko. Mendiak eta kirolzaletasunak euskal nortasunaren baitan duen garrantziaren erakusle litzateke.

Hitzaldien gaiak, oro har, ENAMekin lotura zuzena dutenak dira: gazteok eta Herri Batasuna, gazte mugimenduaren bilakaera, euskal nortasuna eta sinbologia, euskal kultura, presoen borroka e.a. Ildo nagusia hor kokatzen dela ulertuz. Horrez gain, hiru ekimen aldarrikatzaile nabarmentzen dira: presoan aldeko enkartelada, prentsaurreko masiboa eta ekitaldi politiko zentrala.

Egitarauaren baitan kokatu ez arren, adierazgarria da eskuorriaren baitan ageri diren ikur aldarrikatzaile bakarrak, bat maparen baitan dagoen ikurrina bat dela (aldarrikatzailea kontsidera badaiteke) eta bestea, egitarauan ageri den seilu bat “ZENTSURA POLITIKOAREN AURKA. Independentziaren alde” adierazten duena. Horrez gain, gerturatzen direnei herria eta natura zaintzeko eta euskaraz bizitzeko gonbitea egiten zaie.



## 2000, KANBO

"Euskal gazte herria, ikusi, amestu eta asmatu... independentzia!" lelopean, laugarren edizio hau propositu jakin batekin dator, Euskal Herri osoko gazteriaren erreferentzia izateko jaioko den Gazte Antolakundea aurkeztea. Eta nabari da helburu nagusi horren arabera da programazioaren izatea.

Oiartzungoak ez bezala, antolatzaileen logoak modu argian ageri dira eskuorrian: hurrengo Gazte Antolakundearri bide emateko Jarrai eta Gazteriak disolbatzera doaz: "Euskal Herria aukera paregabe baten aurrean aurkitzen den honetan, Gazteriak eta Jarrai erakundeak apustu berri bati ekitera goaz. Jakin badakigu eta gure herriaren eraikuntzari begira, bi erakundeok egin diezaiokegun ekarpenik garrantzitsuena, Euskal Herriko herrialde ezberdinetako gazteak bere baitan bilduko dituen Gazte Erakunde Nazionalari ateak irekitzea dela. (...) Euskal Herriko gazte erakundea sortzera goaz, euskal herri berri eta gorriaren egunsentia ortzian marraztuko duen erakundea izatera goaz."

Ekitaldi politikoa baliatuko dute Haikaren jaiotzarako, Topaguneko momenturik garrantzitsuena dela adierazten dute, mobilizazioaren momentu gorena. Izena eta logoa oraindik ageri ez badira ere Haikaren oinarriak definitzen dituzte: "Gazte erakundea. Euskal Herri oso(eta)koa. Independentista. Iraultzailea. Euskalduna. Internazionalista. Euskal Herriko gazte erakundea sortzera goaz, euskal herri berri eta gorriaren egunsentia ortzean marraztuko duen erakundea izatera goaz."

Gazteriak eta Jarraiko militanteak eta zerbait gehiago izateaz gain, Haikaren funtzionamendua ez ei zegoen definituta. Gerora, Amaiur prozesua jarriko du martxan Haikak, baina gogoetarako eta eztabaidarako tarte berezitu bat agertzen da egitarauan. "Euskal gazte herria iragana, oraina eta geroa hausnartuz eta asmatuz" lelopean, arlokako eztabaidak ageri direlarik: herrietako gazte antolakuntza, gazte sorkuntza literarioa, antzerkigintza, gazteria eta natura, gizarte eredua eta lurralde

antolakuntza, hezkuntza ereduak, gazte komunikazioa, gazte mugimendu feminista, eta etxebizitzaren problematika.

Horrez gain, egitarau aldetik eskaintza pixkana zabaltzen doala dirudi. Globalizazio prozesuak, kulturaren inguruko gogoetak, eta lehendabiziko aldiz nazioarteko gune bat bereiziz, non, askapen prozesu ezberdinetako gonbidatuak egongo diren: Kurdistan, Timor, Irlanda

Ekitaldi aldarrikatzaileek ere txoko berezitu bat dute programan, bertan harrera ekitaldia, "euskal herria bat da! Mugarik ez, independentziaz", Euskal Nortasun agiria, eusko gudari eta preso politikoei omenaldia eta manifestazioa, eta Euskal Herri osoko gazte erakunde berriari agurra eta oroit harria jasotzen dira.

Eskaintza kultural aldetik zabala da egitaraua, gazteen azokak eta esperientzien guneak ere finkatu dituzte mapan eta egitarauan. Horrez gain, berrikuntza moduan, Jarrairen webgunean egunez egun pasatzen denaren berri emateko asmoa adierazten dute.

## **2002, ELORRIO**

Elorrioko Topagunea, besteak beste, Berri Txarrak musika taldeak okasiorako egin zuen Bisai Berriak abestiagatik pasa da historiara, gazte mugimenduaren *iraganeko zubi eta geroaren irudi* bihurtuz Elorrio."Pentsatu, egin eta izan. Guk iraultzaz independentzia" lemapean milaka lagun elkartu ziren Elorrion, Gazte Topagunearen 5. edizioan.

Gazteen "esplotazio" egoeraren aurrean egoerari alternatibak eskainiko dizkion "proiektu politiko integrala" gorpuztea hil ala bizikotzat finkatzen da eskuorrian. Bide horretan kokatuz Topagunea: "pausuz pausu, urratsez urrats Euskal Herria eraikitzen ari garen eta konpromezu hori hartua dugun orok bere txokoa izango du Gazte Topagunean. (...) Euskal Herri Berria sortuko dugu: bere buruaren jabe, euskaraz bizi, pentsatu eta mintzatuko dena, justizia sozialean, askatasunean eta demokrazian oinarritutakoa" .

Kontuan hartzekoa da euskal gazte mugimendua ilegalizazio aroan sartua dagoela. Kanbon aurkezpena egin ondoren, urte bete baino lehen legez kanporatu zuen Grande Marlaska epaileak Haika. Handik gutxira aurkeztu zuten Segi ere, hilabete gutxiren barruan legez kanporatua da. Errepresioaren mehatxua lehenagotik ezaguna bazen ere, mobilizazio eredu hau, Gazte Antolakunde legalik gabe gauzatzen aurrena izango da. Testuinguru horretan, egitarauan iraultza eta iraultzailetasuna ditugu azpimarratzeko, baita segurtasunari buruzko hitzaldiak ere. Horrez gain, drogen afera ere nabarmentzekoa da, hitzaldi batean baino gehiagotan egoteaz gain, eskuorriak trapitxeroen aurkako mezu argia baitu: "txakurrek trapitxeroak kolaborazio polizialerako erabiltzen dituzte. Trapitxeroak Topagunetik KANPORA!"

Hitzaldiei, tailerrei eta eskaintza kulturalari dagokionean, aberastasuna badago. Gainera, hiru mobilizazio, behintzat finkatzen dira: gudariei omenaldia, "independentzia eta sozialismoa" lemapean manifestazioa eta ekitaldi politikoa. Antolatzaileen ikurrik ez da markatzen, baina Topagunearen laguntzaile gisa ageri Gara.

## **2004, ITSASONDO**

Topagune honen ardatz nagusitzat independentzia, iraultzailetasuna zein balore iraultzaileak eta bizi eredu askatzaileen filosofia orokorra markatzen dituzte antolatzaileek. Hala, "Gu gera herria, egin dezagun bidea" lemapean gazte mugimenduaren, Jarrairen sorreraz ari direla ulertzen da, 25. urteurrena ospatu asmo dute.

Bozeramaileek Gara (2004-03-21) egunkariari adierazi ziotenez: "Gazte herria egin nahi dugu. Kontsumismotik urrunduko den aisiaz gozatu, gorputz estereotipoak alboratu, harreman aske eta naturalak bultzatu, sexu askatasuna gauzatu; balore eta bizi eredu alternatiboen apologia egin nahi dugu. Gazte Topagunea gure antolatzeko eta borrokatzeko grinaren

erakustaldia da, eta egungo zapalkuntza egoera honetan, hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula!"

Helburu horiek islatzen dira egitarauko hitzaldi eta eztabaiden gaietan, kapitalismoaz, gazte borroka ezberdinez, kontsumoaren kontra-botereaz, espazio liberatuen defentsaz, komunikazioaz, eta egoera politikoaz arituko direlarik, besteak beste. 25 urtetako gazte borrokari ere egingo zaio erreferentzia, "memoria astintzen. 25 urte borrokan, ta segi aurrera" izenburupean. Lehenbiziko aldiz "emakumea eta feminismoa iraultza eta askapen mugimenduetan", nazioarteko ordezkarien mahai ingurua antolatzen da, nahiz ziurtzat eman ezin, feminismoari egiten zaion lehen keinua izan daiteke hau.

Aldarrikapenerako ekimenen artean gudariei omenaldia eta gazte ekitaldia azpimarratu daitezke. Edizio honetan ikus daitezkeen berrikuntza bat, besteetan errepikatuko ez dena, ate irekien jardunaldiena da, heldu zein gazteek topaguneaz goza dezaten. Laguntzaileen artean, aurreko edizioan ageri zen Gara-z gain, Gazte Sarea eta Xirika ageri dira, eta azken honek Topagunean bere proiektuaren aurkezpena egingo du.

## **2006, ETXARRI ARANAZ**

12 urteren ondoren, 2006.nean berriro itzuli zen Etxarri-Aranatzera Gazte Topagunea. "Tipi tapa, independentzian TOPA!" izan zen urte artako leloa eta Kuraia musika taldeak egin zuen edizioaren abestia "oroitzapenak, kolpeak eta laztanak" izenekoa.

"Estatu zapaltzaileen errepresio gordinaren" gainera, bakoitzak bere eremuan euskal gazteek burutzen duten lana azpimarratzen da eskuorrian, guztiak independentzia beharraren aterkipean bilduz: "Topagunearen lau egunek egindako lanaren eta zentzu horretan gazteon indarraren erakusle izango dira, baina baita, jaia eta borrokaren alaitasuna lau egunetako

ezaugarri bihurtuko dira. Etxarri, estatu zapaltzaileen errepresio gordinenaren gaintik, eremu askea bihurtuko dugu, espazio liberatua, Askea eta Askatzailea. (...)Euskal Herriaren eraikuntza, gazte espazion eraikuntza konpromisoarekin eta era autogestionatuan gauzatzen dugu, auzolanaz gauzatzen dugu. Modu berean egingo dugu Gazte Topagunea. Euskal Herriko gazte mordoaren parte hartzearekin. Gu guztiok egiten dugun ekarpenarekin osatuko dugu Gazte Topagunea '06. Topa egiteko eremu askea izango da Gazte Topagunea, muga gaintik TOPA egingo dugu gazteok Etxarrin. "

Errepresioaren muga gaintik "TOPA" egin eta antolatzeko deia luzatzen dio beraz, antolakuntzak Topaguneko parte hartzaileei. Egitarauak ez du beste edizioekiko ezberdintasun nabaririk ageri, hitzaldi eta eztabaiden artean askotariko alorrak aurki genitzake, gehienak ENAMen ingurukoak lirateke (euskal sozialismoa, euskal sindikalismoa, Euskal Herria eraikiz, bihar Euskal Herria, borrokaz aske biziz, Euskal Herriko emakumeen eskubide karta, Euskal Herrian bizi, nazio plana...). Dena den, autogestioa, prekaritatea eta eraldaketa soziala, koordinazioa eta auzolana bezalako izenburuak ere badaude.

Mobilizazio edo ekimenei dagokionean presoen aldeko ekitaldia eta ekitaldi politikoa aipatzen dira. Eskaintza kulturala zabala da beste behin, tailer eta ikastaroen artean bideoak egitea, web orriak diseinatzea eta kriptografia bezalako arloak daude, teknologiaren aroan murgiltzen ari den heinean, komunikazio estrategiak ere eztabaidagai direlarik. Aipatzekoa da, lehen aldiz Gazte Topaguneko irudiekin bideo bat plazaratuko duela Segik, Kaiolatik AT-en eta geroago sarean publikatuko dena.

## **2008, LEZO**

Topagune honen testuinguruan, garai gogorrak bizi ditu euskal gazte mugimenduak, legez kanporatzeaz harago, 2007. urtean erakunde terrorista izendatu baitzuen Espainiako sistema judizialak Segi Gazte

Antolakundea. Haatik, Segiko kide izateak 6 urte espetxe zigorra ekar zezakeen. Egoeraren aurrean, zorrotz zuzentzen dira Topagunearen antolatzaileak, etsaiak argi markatuz: "Aurpegia estalita kolpatzen gaituzten zakur amorratuen herrian hezitako gazteria gara, tortura eta espetxearen gau ilunaren mehatxuak jateko arriskua duen gazteria. Ilusio garaiak euren ilunabarrera iritsi direla erakutsi nahi digutelako Parisen, Madrilan, Iruñean eta Gasteizen gotortzen diren korbatadunek. (...) Eta eurek legearen, konstituzioaren eta Libertè, Ègalite, Fraternitè-ren eta kasik, Jaungoikoaren izenean hitz egiten duten bitartean kalean bizitzera kondenatzen gaituzte, aurpegia estalita dutenen mehatxupean; hitz egitea ere ukatu nahi digute "hablar" eta "parlier" egitea nahi baitute, gure herriari eta izanari uko egin diezaiozun; eurek gure herria zulatuz diruaren paradisura eramango dituen tren azkarrak eraikitzen dituzten bitartean, herriak bizi dadin beharrezkoa duen hezkuntza sistema boloniar saltsan egosten duten bitartean."

Konfrontazio hori lehen aldiz Gazte Topagunera joateko deialdia eginez grabaturiko spotean ere ageria da, non Espainiar Konstituzioa eta Frantziar Oilasko figurak parodiatzen dituzten euskal gazteriak garaitu beharreko etsaitzat markatuz. Bertan Urkullu Espainiaren konplize gisa ere markatzen dute, spotean antolaturiko gazteriak bi figurak gainditzen ditu. Hori bera islatzen da Topaguneko eskuorrian, aldarrikapen eta lanabes ezberdinak eskuetan dituztela (okupazio bandera, presoan aldarria, ikasleen arkatza, gitarra, adreilua, aurpegiko estalkia, matxinadaren sardexka...) prest dagoen gazteri baten sinbolizatzen da.

Gainera, bide propioa egiteko beharra azpimarratzen dute "etorkizuna independentzia" lemapean, *guaz* mintzo direnean emakumeez, gazteez eta herritarrez mintzo direlarik: "Emakumeok, gazteok, herritarrok Euroaren zeinuaren menpeko subjektu abstraktu garen gauera ekarri gaituzte, etsiko dugulakoan, bizitzari eta herriari bizkar emango diogunaren uste erdi ustelean. Baina ilunabar horretan Independentzia hizki larriz idaztea erabaki dugu; Gaztetxea, Herri Eskola, Kontrainfomazioa, Parekidetasuna eta Eskubideak idaztea erabaki dugun moduan. Asmatu dugu hamaika aldiz gauaren ilunean argiz idazten genuela INDEPENDENTZIA Euskal Herriko zeruan, iluntasunean ikusi egiten baitugu,

argitasunean sinesten dugulako. Eta orain, ametsak amestu ordeztetuz  
erabaki dugu, etorkizunak izen bakarrik duelako: INDEPENDENTZIA!"

Egitarauan, dena den, hitzaldi eta eztabaidetan behintzat,  
independentziari edo proiektu politikoari buruzko gaiak ez dira gehiegi  
ageri "herri honen erronka berriak" litzateke alor horretatik gertuen  
kokatutako hitzaldia. Esan behar da, eskuragarri dugun eskuorriak ez duela  
egunez egungo programazioaren zehaztapenik jasotzen. Ez da, adibidez,  
ekitaldi politikoaren edo bestelako ekimenen inolako berririk, baina ez nuke  
halakorik izan ez zenik ondorioztatuko, izan ere, Segiren historia batzen  
duen bideoan, edizio horretako ekitaldiren bateko irudiak ageri dira.

## **2010 eta 2011**

Bi urtez behin Topaguneak antolatzeneko dinamikaren haria eten egin  
zen urte hauetan zehar, baina udaberriak ez ziren gazte mobilizaziorik gabe  
geratu. 2008ko udazkenean egin Zutik Euskal Herria adierazpenaren  
ondoren, ezker abertzalea estrategia aldaketarako hausnarketa prozesu  
batean murgilduta zegoen. Hala ere, Estatu estrategiak bere horretan  
mantentzen ziren, errepresioaren jo puntutzat gazteria harturik, besteak  
beste. 2009. urtean Amaiur Garazi arteko Gazte Martxa aurrera ateratzea  
lortu bazen ere, urte bereko azaroan, Zestoan burutu asmo ziren gazte  
mugimenduaren topaketen bezperatan, Segiren aurkako operazio  
polizialean 36 kide atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituzten, beste lauk  
ihes egitea lortu zutelarik.

Gazteriaren kriminalizazioaren eraginez jardun politikoak  
klandestinoak behar zuten izan. Behin baino gehiagotan salatu izan dutenez  
(Tximeletak: etengabeko metamorfosia), klandestinitateak eta  
errepresioaren mehatxuak erabat oztopatzen zuten aktibitate normalizatua,  
gazteria defentsiba eta erantzun markoetan egotera behartuz. Zerbait  
eraikitzea oso zail bihurtuz.

Testuinguru honetan, non estrategia aldaketaren baitan indar metaketaz hausnartzen ari den ezker abertzalea, eta gazte mugimendu independentista kriminalizatuta dagoen, antolatu zuten **GaztEHerria** mobilizazio jaialdia. Gazte Herriak ideia zabalago bati erantzun asmo bazion ere (Gazteriaren Adierazpena, gerora Bruselara eramango zena), egun osoko ekimen batek hartu zuen zentralitatea, 2010eko apirilaren 2an izango zen Durangon.

Ekimen hau eta Gazteriaren Adierazpenak, baina, indar metaketaren ideia horri ere erantzun asmo zion, ENAMen eremua zabaldu asmoz edo, lehen aldiz Gazte Abertzaleekin (Eusko Alkartasuna alderdiaren gazte antolakundea) elkarlanean atera zen aurrera:

"Abagune politiko garrantzitsuan gaude. Euskal Herriko eragile politiko eta sozial ezberdinek Aberri Egunaren testuinguruan indarrak bildu eta independentziaren alde lanean jarduteko konpromiso irmoa hartu dute. Eta gazteok, mugimendu horretan badugu zer esana eta zer egina, noski. Herri honen oraina eta etorkizuna gara, eta beraz guri ere badagokigu independentziaren aldeko uholdean gazte olatu ahalik eta indartsuena sortzea.

Hain zuzen ere horixe da GaztEHerria, independentzia Euskal Herriaren biziraupenerako aukera bakartzat ikusten dugun gazteon bilgunea. "Ez den herrialdearen kartografoak" izango gara, Sarrik zioen eran.

GaztEHerria independentziaren alde lan egin nahi duen gazte ezkeriar ezberdinen topagunea da.

GaztEHerria independentzia tresnatzat hartuz herri honek behar duen aldaketarako gazteon ekarpena da.. " (Gazte Abertzaleen web orritik)

Egun horretako egitarauan, baina kontzertuek hartzen dute itxuraz protagonismo gehien. Independentziaren aldeko gazteentzat egindako jaialdia litzateke, "bizi dezagun herria, eraiki independentzia" lemapean, ospetsu egin den Esne Beltzaren Sortzen abestiaz lagunduta.

Mobilizazio hori aurrera ateratzea lortu ondoren, urte bereko urrian beste operazio polizial handi bat egon zen Segiren kontra, beste behin, antolaketaren egitura ia guztiz deseginaz. 2011. urtean, beste formatu



bateko ekimena antolatuko da Soraluzen, gazte **Matxinsalto** eguna.

Matxinsaltoko bozeramaileek Gara egunkariari emandako elkarrizketa batean (2011-04-07) adierazten dutenez gazteriak behar batzuk dituela uste dute : "aspaldidanik gazte mugimenduan hausnarketa bat irekita dago eta ikusten duguna da zailtasunak eta beharrak ditugula gure ideiak aurrera eramateko. Hausnarketa on bat egiteko garaia heldu dela uste dugu".

Matxinsalto egunarekin hitz joko bat egin nahi izan zuten, matxinatu eta salto egin "gazteok, matxinatu gaitzen eta salto egin dezagun hemendik etorkizun hobeago batera, edo gure iritzia eta lana kontuan hartuak izango diren etorkizun batera".

Egitarauak, beraz, asmo horri erantzungo dio, eskaintza kulturalaz gain, mobilizazioaren helburua hausnarketak burutzea denez, eztabaida gune ezberdinetan antolatu zituztelarik tailerrak: harremanak eta sexualitatea, komunikazioa, kultura, hezkuntza, nekazaritza, sozio ekonomia eta aisialdia. Bozeramaileen hitzetan klabeak koherentzia, autogestioa, auzolana eta txikitasunetik lan egitea lirarteke.

## **2013, URDUÑA**

Fase berrian barneratuta, Segiren desegitearen ondoren martxan jarritako ZukGua prozesuaren fruitu izan zen 2013ko martxoan ezagutzera emandako Ernai gazte antolakundea. Hilabeteren barruan, bere jardunari hasiera indartsua eman asmoz antolatuko zuten lehen ekimen nagusia, Gazte Topagune eraberritua, Gazte Danbada izenarekin gauzatuko zen Urduñan.

Funtsa berdintsua izango da: hainbat egunetako gazte kanpaldia, non eremu ezberdinetako alorrak uztartuz gazteria protagonista izango den, gazteek eta gazteentzako antolatutako mobilizazio handi batean. Dena den, saiatuko da edukiz zein formaz, hainbat eremutan berritzailea izaten.

Eskuorriari erreparatzean hainbat ezberdintasun nabarmentzen dira. Hasteko, babesle moduan Topatu.info eta Naiz ageri dira, laguntzaile

moduan berriz, Info 7, Gara, Musika zuzenean eta Berria; horrez gain, Urduñako Udalaren logoa ere ikus genezake eskuorrian, nolabaiteko babes instituzionalaren adierazle. Topatu-ko kideek gainera, ekimenetako irudiekin bideo ezberdinak grabatu eta sareratuko dituzte, tartean egunez egungo jarraipen berezia, umorea eduki politikoeekin uztartuz.

Bigarrenik, orain arteko eskuorritan ez bezala, hainbat oharren artean eraso sexista, homofobo edota arrazisten salaketarako telefonoaren berri ematen da, ekimenean halako jarrerak onartuko ez direla azpimarratuz. Horrez gain, zaborraren sailkapenerako irizpideak luzatzen zaizkie parte hartzaileei "atez ate askoz hobe" leloarekin, nahiz eta jendea kanpin dendetan egon. Atez ateko zabor bilketaren sistemak Gipuzkoan sorturiko zalapartarekin, eta errauskailuaren aurka sorturiko Zero Zabor mugimenduarekin harremandu daiteke adierazpen hau. Errespetua ere eskatzen da, herriarekiko, herritarrekiko, lanean ari direnekiko, eta pazientzia itxarotea egokitzen den momentuetarako. Errebeldiarako ohiko deien aurrean, pazientzia eskatzeak badu zeresanik, errespetuaren eta tolerantziaren mezuek, gazterian ere isla izan dutenaren seinale.

Ernairen logoa modu zentrolean agertzeaz gain, helburu hauek atxikitzen dizkiote ekimenari: "Gazte Danbadak auzolana du oinarri eta Ernairen izaera islatzeaz gain, gazteontzat baliagarriak izango diren tresnak sortzeko tartea eskainiko digu: formakuntzan sakonduz, baliabideak sortuz, eztabaidatuz, etab. Horregatik guztiagatik, Gazte Danbada jaialdi huts izatetik harago, gazte iraultzaile bezala hezteko espazioa izango da. Lau egunetan zehar jaia eta borroka uztartzea posible dela erakutsiko dugu."

Helburu horiek egitarauan islatzen direla esan behar da, hitzaldi eta eztabaidetako gaiak zabalitzen doaz: borroka ideologikoa, internazionalismoa, zero zabor, lomce, jai eredu, elikadura subirautza, gazte problematika, Ezker Abertzalea, EPPK, ipar Euskal Herria eta beste hainbat gai izango dira hizpide. Horrez gain, militantzia eredu eta bestelako identitateen gaineko hausnarketa bideak ere irekitzeko borondatea ere ikusten da: heteroarauari, pantojismoari edo maskulinitateari buruzkoak eta "zapalkuntza ugari, askabide a(u)nitz" bezalako tailerren bidez.

Ekimen edo mobilizazioei dagokionean, gudariei omenaldia eta ekitaldi nagusia identifikatzen dira egitarauan. Gazte Danbada burutzen ari zen egunetan, baina, Xabier Lopez Peña "Thierry", orduan euskal preso politikoa zena hil zen espetxean. Heriotza guztiz naturala izan ez zenaren susmopean, familiak heriotza "politikoa" izan zela salatu zuen, eta Gazte Danbada manifestaldi bat antolatu zen erantzun modura. Gerora, manifestaldiaren eta ekitaldi politikoaren harira, Ernaiko 6 kide, Topatuko kazetari bat eta Periko Solabarria Ezker Abertzaleko militante historikoa inputatu zituen espainiar justiziak, "ETArri gorazarre" egin zitelakoan.

## **2014, saiakera berri bat, ALTSASU**

Ernaren jaiotza ekitaldia egin eta lehen hilabetean antolatu zuten lehen Gazte Danbada, bigarrena, baina, bi urte geroago izan ordez, hiru urte geroago etorri da. Izan ere, 2014. urteko udaberrirako, gazte topaketen formatu berri bat saiatu zuen Ernaik, oraingoan jaio berri zen Aitzina ipar Euskal Herriko gazte antolakundearekin elkarlanean. **Gazte Burutakzio** topaketak Altsasun izan ziren eta dimentsio txikiago batez, baina Ernai eta Aitzinaren bidez gazte mugimendura batu ziren belaunaldi berriei, harremanak egin eta formakuntzako bidea emateko helburuz antolatu ziren. Antolatzaileen arabera "Sistemari nola aurre egin lantzeko topaketak izango dira, eta borroka praktiken inguruko formazio teoriko zein praktikoa jasotzeko aukera eskainiko da ". (Gara 2014-03-07)

Topaketak irekiak izango dira, baina parte hartzeko aurrez erregistratu beharko da. Izan ere, formatu berri honetan aurrez finkaturiko bide-orriaren eta programa irekiaren arteko konbinazio bat probatuko da. Hala, erregistratzean nork gehien lantzea interesatuko litzaizkiokeen gaien arabera kolore bat hautatu behar du, topaketetan zehar ordu batzuk, koloreen baitan egindako taldeek okupatuko dituzte, formazio dinamikak talde horrekin aurrera eramango direlarik. Taldeko dinamikien ostean, egitarau zabala legoke, parte hartzaileek nahi duten aukerak egingo

dituztelarik.

Koloreak, eta oro har, formazio edo tailerrak gai desberdinen inguruan antolatuko dira: desobedientzia, desnormalizazioa, sormena, komunikazio gerrilla, kanpo proiektzioa eta taldeen mikro politikak.

Topaketak aurreikusi baino egun bat beranduago hasi ziren, Nafar gobernuaren mehatxupean. Itxuraz, Nafarroako Foru Erkidegoan hiru egunez gairik kanpaldiak egitea debekatzen duen legediren bat indarrean zegoen. Sarean eta parte hartzaileen artean egon ziren desobedientziarako eskaerak eskaera, antolatzaileek, kasu honetan Burutakzio topaketak egun bat beranduago hastea erabaki zuten. Dena den, parte hartzaileek iradokitzen dutenez, balorazioa oso baikorra da, eta beharrezkotzat dituzte halako jardunak. Kasu honetan ere, Topatu.info-k egunez egun jarraipen berezia egingo die topaketei.

## **2016, LAUDIO**

Ernai eta Aitzinak elkarlanean, Laudion antolatu dute azken edizioa. Hala adierazten dute eskuorrian: "Laudion elkartuko gara bestelako herri eredu baten aldeko borroka hauspotzeko. "Esna harrapa gaitzala" lemapean, aisialdia eta borroka uztartuko dituen planteamendua garatuko dugu lau egunez. Esna harrapa gaitzala, egon gaitzen esna. Oraina garelako, biharkoa guk nahi dugun bezalakoa izateko, esna! Egun gazteok bizi dugun egoera prekarioan, esna egotea ezinbestekoa baita. Esna egoteak bere horretan adi egotea esan nahi du, prest. Prest ito nahi gaituen zurrumbilotik atera eta gure bide propioa egiteko, ekiteko. Iraultza gure baitan hasten da, horregatik da ezinbesteko esna egotea. Burujabetzaren bidean urratsak ematen jarraitzeko, gazteok elkartu eta gure ekarpena egiteko, Gazte Danbada!"

Ito nahi dituen sistemaren aurrean esna eta adi egoteko deia egiten diote beraz, antolatzaileek gazteriari. Eskuorriaren formatuak lehen Gazte

Danbadakoaren esentzia mantentzen du, eta berrikuntzen artean bi nabarmendu ditzakegu. Batetik, elikadura burujabetzara bidean bertako produktuen alde egindako apostua "akeita gunean egongo diren edari guztiak ekologikoak eta inguruko ekoizleenak izango dira. Jantokian ere, bertako eta garaiko produktuek osatutako platerak izango ditugu" ildo horretatik, bertako garagardo ekoizleen azoka eta nekazari eta artisau gazteen azokak ere azpimarratzen dira. Bestetik, "Oholtza gainean bakerik ez" ekimena, musika talde gazteek Danbadan beren lekua izan dezaten, estilo ezberdinetako euskal musika taldeei oihartzuna emateko helburuarekin.

Babesleen artean Naiz, Laudioko Udala eta Topatu.eus ageri dira, laguntzaileen artean berriz Gara, Info 7, Kot, Hamaika telebista eta aiaraldea.eus. Edizio honen jarraipena ere Topatu.eus-ekoek hartzen dute beren gain, baina komunikazio lana beste formatu batean gauzatzen dute kasu honetan, "DanbaTB" izenez ordu eta erdiko telebista saio batean. Bertan, Laudioko ekimen ezberdinetako irudiez eta bertaratutakoei eginiko elkarrizketez gain, antolatzaileek garrantzia eman nahi izan dieten gaiak lantzen dituzte: elikadura burujabetza nekazari gazteen bidez, Danbadak duen atzetiko lana eta antolakuntza, autogestioa, gazte prekarietatea lantzeko sortu berri den lantaldeari elkarrizketa, gazte boteari buruz Ernaiko bi kideekin 15 minututako elkarrizketa eta ekitaldi nagusian jorratutako puntuak, besteak beste. Topaturen aurreko jarraipenek izandako arrakastaren ondoren, telebista saioa transmisiorako bide egokitzat hartu, eta gazte mugimenduaren filosofian eta eduki ezberdinetan sakontzeko asmoz egin da. Horrez gain, telebista saiotik aparte, baina plato berdina aprobetxatuz, Irati Sierra Ernaiko kideak, espetxetik atera berri den Arnaldo Otegi lehenek elkarrizketa egiten dio, hori bera ere sarean zintzilikatuz.

Gazteen artean, eta oro har Euskal Herrian pil pilean dauden gaiek badute islada Laudioko mobilizazioaren egitarauan. Feminismoak indar berezia hartu duela nabarmentzen da, hitzaldi eta mahai inguruen artean: burujabetza feminista, emakumeak sozialismoan, marxismoa Vs feminismoa eta borrokatik barrura begira (hiru belaunalditako emakume militanteen

begiradak) ikus ditzakegu, besteak beste; baina horrez gain, eskaintza kulturean eta tailerretan ere begirada feminista nabari dezakegu: bazterreko dantzariak euskal kulturaz hausnartuz, burdin hariak eta plastikozko goilarak (maitasun lubrikatua, poesia emanaldia), Ez da kasualitatea bertso saio musikatu feminista, erractus erreziltaldi feminista, nor naiz ni performance-a...

Mobilizazio edo ekimenen artean ere badu bere isla horrek, ekintza feminista bat aurreikusten baita. Horrez gain, Hartu Trena presoen aldeko ekimena, Herria Testigu lore eskaintza, ekitaldi nagusia eta aberri eguneko ekitaldia nabarmendu ditzakegu.

Pil pilean dauden gaiei jarraiki, aurtengo Gazte Danbadan gazte prekaritatea eta borroka moldeak, Euskal Herriaren burujabetza prozesua, burujabetza eta independentzia Eskoziar, Greziar eta Herrialde Katalanetako gonbidatuekin, edota Koop 57 eta ekonomia sozial eraldatzailea bezalako alorrak azpimarratuko genituzke. Baita, azken urtean nahiko polemikoa izan den amnistiaren, presoan eta estrategiaren inguruko gaiak ere.

## LABURPENA

Edizioz edizioan analisia amaituta, argigarria izan daitekeelakoan, interesgarria iruditu zaigu urte bakoitzeko hainbat alor koadro batetan biltzea. Modu horretan, bilakaera modu bisualago batean irudikatu daiteke eta aipatu baliabideekin taula bat osatu dugu.

Noiz eta non	Antolatzailea	Lema	Eskuorria n deigarria	Egitarau an deigarria	Berrikuntza	Testuingurua (gazteria / ENAM)
--------------	---------------	------	-----------------------	-----------------------	-------------	--------------------------------

<b>1998 OIARTZUN</b>	Jarrai	Euskal Herriko oihartzuna, gazteok independentzia !	Zentsura politikoaren aurkako salaketa	Jarrai eta SinnFein mahai ingurua, kirol asko		IRA armagabetzea, Lizarra Garaziko mahaia osaketa
<b>2000 KANBO</b>	Jarrai eta Gazteria k	Euskal gazte herria, ikusi, amestu eta asmatu... independentzia !	Bi gazte antolakundetik, batetarako saltoa, zergatiak.	Euskal gazte herriaren hausnarke ta, arloka. Ekitaldi politikoaren zentralitatea	Jarriaren webgunearen jarraipena egiteko asmoa	Negoziaketaren amaiera. Haikaren sorrera
<b>2002 ELORRIO</b>	Segi (ez dago esplizituki adierazita)	Pentsatu, egin eta izan. Guk iraultzaz independentzia !	Trapitxeroren aurkako mezua. Gara babesle moduan	Segurtasunari buruzko hitzaldiak, baita iraultza eta iraultzailetasuna	Manifestazioa "independentzia eta sozialismoa"	Haika eta Segiren legekanporatzea
<b>2004 ITSASOND O</b>	Segi (ez da esplizituki adierazten)	Gu gera herria, egin dezagun bidea!	Independentzia, iraultzailetasuna eta bizi eredu askatzaileak filosofi.		Ate irekien saioa, gaztetxo eta helduentzat	Jarriaren sorreratik 25. urteurrena
<b>2006 ETXARRI ARANAZ</b>	Segi (ez da esplizituki adierazten)	Tipi tapa, independentziaren TOPA!	Errepresioari eta Estatu zapaltzailei erreferentzia. "mugengainetik TOPA"		Bideo bat Topaguneko irudiekin, Kaiolatik AT	
<b>2008 LEZO</b>	Segi (ez da esplizituki adierazten)	Etorkizuna INDEPENDENTZIA!	Subjektu "emakumeok, gazteok, herritarrok"	Gazteriari lotutako gaiak, drogen erakusketak	Spota, Topagunera dei eginez	Segi erakunde terrorista izendatu berri dute
<b>2010- DURANGO --- 2012 SORALUZE</b>	Ezkerreko gazte independentistak (G.A + Segi)	GazteHerria Matxinsalto		Lehenak musika jaialdia dirudi, bigarrena berriz, formatu	Egun bakarreko egitarauak, formatu ezberdinean. Antolaketa	Estrategia aldaketa martxan dago  Gazteen aurkako

				txikian, eztabaida helburu	n zabalkund ea ematen da	sarekada gogorrak
<b>2013 URDUÑA</b>	Ernai	Badator iada, Gazte Danbada!	Gaikako zabor bilketarako irizpideak. Erasoen salaketara ko telefono zenbakia	Jarduera teorikoen eta praktikoe n arteko oreka eta uztarketa	Topatu.inf o-ren jarraipena	Gazte antolakund e berri eta legala. Thierryren heriotza espetxean
<b>2014 ALTSASU</b>	Ernai eta Aitzina!	Burutakzio: gazteok burua eta akzioa!		Bi ataletan banatua: bata koloreka (talde berdinare kin) bestea librea	Formatu ezberdinea n, esplizituki formakunt zara bideraturik o topaketak	Gazte belaunaldi berria
<b>2016 LAUDIO</b>	Ernai eta Aitzina!	Esna harrapa gaitzala!	Elikadura burujabetz a eta ekologikoa	Feminism oaren presentzia	Oholtza gainean bakerik ez	Kataluinak o prozesu independe ntista, erabakitze ko eskubidear en mobilizazio ak eta feminismo aren gorakada

Iturria: eraketa propioa



## 5. ONDORIOAK

---

Mugimendu batek iraultzailea izatekotan etengabe egon behar omen du egokitzen, jendartea bera ere etengabe ariko baita aldatzen. Gazteek, (gazteok) badugu indar bat etengabeko eraberritze hori bermatzen lagun dezakeena; haize berriak, maiz, belaunaldi berrien bidez etortzen baitira.

Lan honetan, gehien bat helduek teorizatutako gizarte mugimenduei errepasso bat eman ostean, heldutasun hegemonikoaren aurreko gaztetasunaz eta gazte botereaz aritu gara; gazteen eta gazte izandakoek esanak jasoz. Eta esan genezake bai, gaztetasuna belaunaldiez, esperientziaz eta adinaz harago, gauzak egiteko moduarekin ere harramantzen dela. Helburu txikiak gauzagarri bihurtu, eta aurrera egin. Bilbora egindako bisitan hala iradoki zuen Angela Davis ekintzaileak: "Aldaketa erradikal eta iraultzaileen lehen lerroan beti gazte jendea egoteko arrazoi nagusietako bat pazientzia izatera ailegatu ez direla da. Gazteengatik datorren urgentzia hori behar dugu" .

Egindako lan hau ez da nahikoa gazte mugimendu independentistak Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren baitan izan duen errelebantzia ondorioztatzeko, zenbait gaitan aitzindari izan dela susma genezake (feminismoa erdigunean jartzean, protesta errepertorioetan), beste zenbaitetan erresistentzia gehien markatu dituen sektorea ere izango zen (estrategia aldaketa, borroka instituzionala), beharbada. Dena den, ikerketa bide berri bati ateak ireki diezazkiokeen galdera litzateke.

Behin analisia burututa, baina, euskal gazte mugimendu independentistari helduz, zenbait zertzelada gaineratu nahi nituzke. Batetik, subjektuak (gazte mugimendu independentistak) berrogei urtetako ibilbide luzea baduela. Gaztez osaturiko gazte mugimendua, ez da beraz, hain gaztea. Horrek ez du esanahi ordea, zaharkituta edo politikoki agortuta dagoenik.

Identitatea mantendu bai, baina ez zaharkitzearen gakoa, eraberritze horretan kokatuko litzateke. Egoera politikoaz eta sozialaz gain, kultura politikoa ere asko aldatu ei da azken lau hamarkadetan. Horrekin, baita

politikarekiko eta jardun politikoarekiko pertzepzioa ere. Konpromiso politiko handiko garaietatik: militantzia eredu zurrinak eta maskulinizatuak (ez horregatik soilik gizonenak), kuadro egiturak, gizarte zibil polarizatua, nazio perspekiba/perspektiba makroa, "borroka da bide bakarra". Orain, kultura politikoan parte hartzea da modako kontzeptua, gizarte mugimenduetan ere, balore postmaterialistek geroz eta protagonismo handiagoa dute, militantziarekiko pertzepzioa aldatu egin da, norbanakoa da abiapuntua, perspektiba mikroa garatuz doa eta "bidea da borroka".

Ez da nire asmoa batzuk ontzat eta besteak txartzat hartzea, ez nostalgikoki eta ezta kritika anakronikoak eginez aritzea ere. Orekaz, nork bereaz, eta kasu honetan gazte mugimendu independentistaren jardunak bilatu beharreko orekaz ari naiz. Duela berrogei urte antolatzen hasi ziren gazteen esentziatik bada zerbait egungo gazte belaunaldian, ezkerreko abertzaletasunean kokatuz, herri baten independentzia dute xede. Independentzia lortzeko, borrokatzeko eta Euskal Herri independentea (orain burujabea) irudikatzen moduak dira, agian, aldatzen joan direnak.

Mugimendu honen bilakaera aztertzen fenomeno oso baliagarriak dira Gazte Topaguneak, orekaren esentzia bera islatzen baitute. 1994tik 2016ra gauza asko aldatu dira eta ez dira asko izango bi edizioetan egoteko aukera izan duten kideak. Baina Topagunearen eredu mobilizazio bezala mantentzeak, helburuak betetzera bidean baliagarriak diren borrokek direla adierazten du. Askotan, topagunea bera helburu izateraino.

Ez dago aurreratzerik gazte mugimendu independentistak zer nolako etorkizuna izango duen, Ernai eta Aitzina! Egonkortuko ote diren, gainerako mugimenduekiko harremanak eta ENAMen baitan duten papera nolakoa izango den. Ez eta Gazte Topaguneek, Danbada izenez edo edonola etorkizunik ba ote duten. Badira Euskal Herrian egosten ari diren kontuak, "Gure Kabuz Ala Hil" dokumentalak hautsak harrotu ostean, alternatiben gazte topaketak datorren udazkenean izango direla dirudi.

Ikusteko, jaiotzeko, gaztetzeko eta bizitzeko dago.

## 6. BIBLIOGRAFIA

---

### LIBURU ETA ALDIZKARIAK

- Aianqiz, R; Barcena, I. (2001): *Euskal Herriko Gizarte Mugimenduak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea
- Barandiaran Irastorza, X (2002): *Gazteak eta politika*. Vitoria-gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Brand, K.: *Aspectos cíclicos de los nuevos movimientos sociales: fases de crítica cultural y ciclos de movilización del nuevo radicalismo de clases medias*.
- Casanova, I. (2007). *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*. Tafalla: Txalaparta.
- Casquete, J. (2010): *El calendario conmemorativo del nacionalismo vasco radical*. Coadernos Bakeaz, 99.zenbakia
- Del Amo, I A; Letamendia, A; Diaux, Jasón (2014): *Nuevas resistencias comunicativas: la rebelión de los ACARP*. Revista Latina de Comunicación Social, 69 Znb.: 307-329
- Della Porta, D; Diani, M (1999): *Social Movements. An Introduction*. Oxford: Blackwell Publishing
- Della Porta, D; Diani, M (2006): *Social Movements: an introduction*, 2nd edition. Oxford: Blackwell
- Egaña, I (1996): *Diccionario Histórico-político de Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta
- Foucault, M. (1979). *Nacimiento de la biopolítica*. Paris. Collège de France
- Harvey, D.: *Los movimientos sociales en la ciudad*.
- Iraola Arretxe, I. (2013). *Abertzaletasunaren bilakaera espainiar immigrazioarekiko: erreakziotik integraziora*. Uztaro, 90 zkia
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte Ikerketarako Teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- Koopmans, R eta Rucht, D (2002): *Protest Event Analysis*.
- Letamendia Onzain, A. (2015): *La forma social de la protesta en Euskal Herria 1980-2013*

Lindlof, Thomas R. (1995): *Qualitative Communication Research Methods*. SAGE Publications, Thousand Oaks.

Loiola Idiákez, A. (2009). *Movimiento urbano juvenil herético-subersivo*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Zainak

Lopez Aranguren, E. (1989): *El análisis de contenido*. Madrid: Alianza Universal

Martí I Puig, S. (2002) *Los movimientos sociales*. 2016ko abuztuan kontsultatua:  
<http://campus.usal.es/~dpublico/areacp/materiales/Losmovimientossociales.pdf>

Mujika Zubiarraín, G. (2004): *Gazte matxinada : inoiz kontatu gabeko historia*. Zezengorri- Xirika

Ó Broin, E. (2003). *Historia del movimiento juvenil radical vasco*. Txalaparta

Ormazabal, J M. (2014). Gaztea eta partaidetza: distantziak. *Parte Hartzea eta Herrigintza*. (62-79 orr) Jakin 203 znb.

Sienra, I. (2016). *Zerqatik ez duqu hitz eqiten zapalkuntza laukoitzaz?* Ipar Hegoa, Ernai, Bilgune Feminista. *Irla bat izan ez dadin*. (4-6 orr)

Tarrow, S. (1998). *El Poder en Movimiento*. Madrid: Alianza

Tarrow, S. (2004). *El poder en movimiento : los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Alianza editorial

Tilly, C. (2004). *Social Movements, 1768-2004*

Zubiaqa, M. (2002). *Gizarte Zibilaren ahotsa eta bere ezaugarriak*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Zubiaqa, M.: *El ciclo de protesta en Euskal Herria: hegemonía y radicalización democrática*, publikatu gabeko kapitulua

Zubiaga, M. (2007): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta UrbinaMaltzagako liskarretan*. Doktorego-tesia. Leioa. UPV-EHU.

## **ERNAIREN LIBURUXKAK:**

-Ezker Abertzalearen bilakaera

-Lehen Kongresua

Topagunez topagune, euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera



-Urrats Feminista: feminismoa bizi ereduaren oinarri

## **BIDEO ETA DVDakideo eta DVDak:**

Tximeletak: etengabeko metamorfosia

Segi, gazte erakundearen historia gainbegiratuta. 2016ko abuztuan kontsultatua.

<https://www.youtube.com/watch?v=9fxVOAIGpaI>

Danbada TB, Topatu.eus-ek ekoitzia

Kaiolatik AT, 2005ko Abendua (Segi)

Kaiolatik AT, 2006ko Ekaina (Segi)

Lezoko Topagunea, Spota, 2016ko abuztuan kontsultatua

<https://www.youtube.com/watch?v=CY9E7Z9zjuk>

Urduñako Gazte Danbada, egunez egungo bideoak, 2016ko abuztuan kontsultatuak

[https://www.youtube.com/watch?v=WHfxVC\\_nUIE](https://www.youtube.com/watch?v=WHfxVC_nUIE)

[https://www.youtube.com/watch?v=kqYJY\\_-Ryd4](https://www.youtube.com/watch?v=kqYJY_-Ryd4)

<https://www.youtube.com/watch?v=v7nbnHwLiy>

[https://www.youtube.com/watch?v=LHOMp\\_PUr3o](https://www.youtube.com/watch?v=LHOMp_PUr3o)

Altsatsu Gazte Burutakzio, Topaturen jarraipena, 2016ko irailean kontsultatua

<https://www.youtube.com/watch?v=rNIEEzcNFI4>

[https://www.youtube.com/watch?v=\\_qCOGzUEyYo](https://www.youtube.com/watch?v=_qCOGzUEyYo)

<https://www.youtube.com/watch?v=sY0hnlikK5o>

## **WEB ORRIAK**

Ernai-ren web orria, 2016ko abuztuan kontsultatua:

<http://ernaigazte.cc/>

Aitzina!-ren web orria, 2016ko abuztuan kontsultatua:

<http://aitzina.eus/eu/>

Gazte Abertzaleen web orria, 2016ko irailean kontsultatua:

<http://www.gazteabertzaleak.eus/>

Wikipedia, Segiren definizioa, 2016ko abuztuan kontsultatua.

Garako hemeroteka

## ERANSKINAK

1998 OIARTZUN

# Gazte Topagunea Egitaraua



## ikusi...

Euskal Herriko

# Oihartzuna

Gazteak

Oiartzun

98

### GAZTE TOPAGUNEA 98 INDEPENDENTZIA... badaiteke

**Aurtengoa Jarraik burutzen duen hirugarren Gazte Topagunea da. Bi Mendi martxak tartekatuta, lau urtetan zehar bi ekimen burutu genituen, lehenengoa Etxarrin eta bigarrena Zaldibin. Biak esanahi sakona eduki zuten eta erakundearen historian momentu garrantzitsuen irudi izan dira, bakoitza garai desberdinean gazte mugimenduak bizi zuten egoerari egokitua. Urtez urte indar haundia lortzen joan dira eta ondorioz bai eskeintza aldetik zein gaztediaren erantzuna goruntz jo dute etengabe.**

Zaila da inoiz ikusi izan ez duen bati Euskal Herrian gazteok Topagune bat nola bizi izaten dugun azaltzea. 25.000 gazte herri batean bere kabuz bizitzen, formatzen, beste herriekiko harremanetan sakontzen eta, zergatik ez, ondo pasatzen. Jarraik gazteontzat eskeintza sozial eta kultural zabala prestatu du, non gazteok protagonista diren. Gazteok egina eta gazteongan pentsatzen. Sistemak, frantziar eta espaniar estatuek sumisio eta menpekotza besterik eskeintzen ez dituzten bitartean, euskal gazteok geure kabuz bizitzeko gai garela erakusten dugu, proiektu politiko eta sozial baten inguruan lanean.

Gazte Topaguneak eztanda bat irudikatu nahi du. Bizi dugun egoera latzaren ezabatzea ekarriko duen eztanda, inposatu zaigun errealitatea suntsitu nahi duen eztanda. Baina era berean askatasunarena, herri honen subirano bizitzeko daukan ilusioaren eztanda, elkartasunarena, eta herri honek daukan potentzialitate guztien gauzatzea. Independentziaren eztanda. Oiarzunen kokatuta dagoen lehergailu honek bere metralia guztia herrietara zuzenduta dauka. Eta laister ikusiko duzue.

Aspaldi konturatu ginen herri hau ezin zela egon bere arazo guztiak konponduko ziren egun baten zai egon. Independentzia, helburu bat izateaz gain bitarteko bat ere bazela. Independentzia lortzeko independentzian bizitzen ikasi egin behar genuela. Topaguneak eredu horri erantzuten dio: hiru egunez askatasunaz gozatu nahi dugu, menpekotasunetatik kanpo, publizitate gabe, kontsumismoaz aparte, indibidualismotik at, sexismorik gabe, zapalkuntzarik gabe. Borrokatuz, militariz, gure esperientzia konpartituz eta besteen esperientziak aberastuz.

Topagunea sistemak gazteoi inposatu nahi dugun isolamendutik ateratzeko espazio bat da, gure arteko komunikazio naturalerako gune bat. Pertsona oinarritutako komunikazioa indartzen duen gune bat, komunikazio zuzena, partehartzailea, dinamikoa

## EGIIAKAUA


### OSTEGUNA:

- 8'30etan:** Mendi Martxa. Hego eta ipar Euskal Herria banatzen duen inposaturiko mugatik.
- 13etan:** Gazte Topagunearen hasierako ekitaldia. Herriko plazan.
- 13etatik gaueko 4etara:** Kafe karpa.
- 16etatik 20etara:** Guneak irekitzen dira.
- 16etan:** Eztabaida: Gazteok eta sexualitatea. Kafe karpan.
- 16etan:** Hitzaldia: Euskal kultura. Kultur gunean (Hautzaro ikastolan)
- 16etatik 19etara:** eskalada. Madalensoron.
- 17etan:** Herri kirolak. Elizalde eskolan.
- 18etan:** Eztabaida: Gazteok eta Herri Batasuna. Elkarren arteko ekarpena. Udaltxean.
- 19etan:** Antzerkia. Kafe karpan.
- 20etan:** Enkartelada: Euskal Presoak Euskal Herrira!
- 21tan:** Jaialdia: Oretako olerkariak, Hernaniko bertso eskolakoak, Morau eta Etzakit

### OSTIRALA:

- 3etatik gaueko 22etara:** Kafe karpa.
- 10etan:** Mendi Martxa Jaizkibelera. Zuhaitzen landaketa.
- 11etan:** Hitzaldia: Presoen borroka. Kafe karpan.
- 10'30etatik 8etara:** Guneak irekita.
- 10'30etan:** Herri Olinpiadak.
- 12etatik 14etara:** eskalada.
- 15etan:** Poesia saioa. Kafe karpan.
- 16etan:** Eztabaida: Gazte Mugimenduaren bilakaera. Gazte talde ezberdinen xarriidekin. Gazte esperientzien gunean (Elizalde eskolan).

# Oiartzungo mapa o




- 1** Herri gunea (Kordinazioa, Informazio puntua, Irratia, Udaltxhea).
- 2** Akanpalekua (bide gorria).
- 3** Karpa erraldoia (Ugaldetxo).
- 4** Komunikazio gunea (Madalensoro frontoia).
- 5** Kafe Karpa
- 6** Herri esperientzien gunea (Elizalde eskola).
- 7** Kultur gunea (Hautzaro ikastola).
- 8** Kirol gunea (Elizalde eskola).
- 9** Kultur etxea.





# okorra



ria zaindu, natura zaindu  
euskaraz bizi!!

98

16etan: Hitzaldia: Gazte literatura. Kultur gunean.

16etatik 18etara: Zinema. Kultur etxean.

16etatik 19etara: eskalada.

17etan: Futbolin txapelketaren finalak. Udaletxearen aterpeari

17etatik 21tara: Arratsalde musikala. Kafe karpan.

18etan: Hitzaldia: Euskal Selekzioa. Kirolari ezberdinekin. Udaletxean

19etan: 7eskale taldearen emanaldia Kafe Karpan

21tan: Kontzertua: Garage H, Betagarri, Fermin Muguruza & DUT eta A... DI  
Foundation.

## LARUNBATA:

8etatik 22etara: Kafe karpa.

10etan: Mendi Martxa. Eusko gudariei omenaldia.

10'30etatik 19etara: Guneak.

10'30etan: Herri Olinpiadak.

11etan: Hitzaldia: Euskal nortasuna eta euskal sinbolioja. Kafe karpa

11etan: Eztabaida: Gazte Mugimenduaren erronkak aurrera begira. Gazi  
esperientzien gunean.

12'30etan: Prentsaurreko masiboa.

16etatik 18etara: Zinema. Kultur etxean.

16etatik 19etara: arratsalde musikala. Musika Berriak. Kafe karpa

17etan: Hitzaldia: Askatasunaren aldeko borrokan dauden herrietako gaztee  
eskubideak. Jarrai eta Sinn Fein Gazteak. Udaletxean.

20etan: EKITALDI POLITIKOA. Karpan.

21etan: Kontzertua: Flitter, Etsaiak, Su Ta Gar, Biohaz

Hiru egunetan zehar, erakusketak, teknologia berriak, kale animazioa, tailerra  
mobilizazioak, gazte taldeen presentzia, irrati libreak, Gazteon Ohartzun  
egunkaria, eta hainbat eta hainbat ekimen...



## JARRAI GAZTEDIAREN EKIN EUSKAL HERRIAREN TZAT

**Guretzat, JARRAIrentzat, Oiarzun apostu bat da. Ez da gure burua zuritzeko ariketa bat, ze jatorrak garen argi eta garbi uzteko ekintza ikusgarria. Gure balio garrantzitsua, ekimen masiboetaz gain, egunerokotasunean eta herriz herri ikusten da, erakusten da. Gure zintzotasuna elkarlanean eta borrokan igartzen da. Gurekin lanean, herriaren tzat borrokan. Kalera joaten bazara han topo egingo dugu, daukagun topagunerik garrantzitsuenean, inoiz galduko ez dugun horretan. Hor kokatzen bait da garaipena.**

Topaguneak euskal gazterdiaren inguruan egon daitezkeen topiko ugari apurtzen ditu, hara nola arazoak elengabe lotzen duen pertzepzioa. Gazteak eta droga, gazteak eta irrazionaltasuna, gazteak eta marginalitatea,.... Gazte Topagune batean prototipo guzti hoietsukerria argi eta garbi geratzen da. Jarralrekin ere, erakunde bat den neurrian, berdin gertatzen da. Jendearen gehiengoak Jarralrekin hitz egiten du bere proiektuaz, inardueraz eta bera osatzen duten konponente humanoaz lurtik ere jakin gabe. Topagunean gure egunerokotasunaren sintesi bat ematen da, gure dinamika bat egiten dute hiru egunetan zehar toki fisiko amankomun batean. Norbaitek Euskal Herrian gazteok zer gaiten, zer egiten dugun eta nora goazen jakin nahi baldin badu, Oiarzunen atukera ezin hobea edukiko du.

Topagunea Euskal Herriak jasaten duen gatazkaren erdian kokatzen da. Bizirauteko antolatutako behar gara, borrokatu behar dugu. Euskal Herria erakuntza prozesu batean murgilduta bizi da, honek eduki dezakeen zentzunik zabalenean. Milla politikoan, sozialean, ekonomikoan, kulturean **eredu propio bat sortzen** ari gara, gure herrian euskaldun bezala bizi ahal izateko, gure buruaren jabe bihurtzeko. Herri bezala gainbizitzeko behar ditugun minimoak ere egunez egun eta herriz herri borrokatu behar ditugu, estatuek ezartzen dizkiguten mugen gaiterik.


Bide kolektibo honetan gazteok zer esan haundia daukagu. Gazte perspektiba batetik behin eta berriz azaldu dugu gure konprometua, gure borrokarako gina, gure zintzotasuna. Zentzu horretan ere gure ekarpena haundia izan da eta honela jarraituko du izaten. Topaguneak zentzu hori dauka: Euskal Herriaren proiektua gazte begietatik ikusi eta erakusten da, propio daukagun arazo eta bideak mairratuz, herri honek eramaten duen borrokan kontestuan. Gazte kolektiboaren indarra herri honen erakuntzarako beharrezko den gasolina da.

Aurtengoa berezia izango da, izan ere, aurtun Jarral-k bere adin nagusigoa bete du. Hamazortzi urte hauetan milaka eta milaka gaztek bere gogo eta indar guzti proiektu bat osolatu eta garatu dute. gaur egun **Jarral-ren proiektu politikoa den hori: Independentzia eta sozialismoa gazte perspektiba batetik ikusita.** Milaka gazte horien lanak eta ibilerak historia propio bat sortu dute. Jarral erakundearen historia txikia. Oiarzunen ikusi eta bizi ahal izango dena lan zabal horren ondorio garbia izango da.



**ekin**

2000 KANBO



Euskal Herria aukora paregabe baten aurrean aurkitzen den honetan, Gazteriak eta Jarrai erakundeak apustu berri bati ekitera goaz. Jakin badakigu eta gure herriaren eraikuntzari begira, bi erakundeok egin diezkiegun ekarpenik garrantzitsuena, Euskal Herriko herrialde ezberdinetako gazteak bere baitan bilduko dituen Gazte Erakunde Nazionalari ateak irekitzea dela.

Jarral eta Gazteriak-en kapital historiko, politiko eta militante guztia jasoko duen izarra, erakundea piztera goaz.

Euskal gazte mugimenduaren ondasunetik jaltzen dena. Gazte berriak borrokara lotuko dituena. Euskal gazteon ahotsa izan nahi duena. Gazte independentista eta iraultzaileen sortzaile eta bilgune. Menpokatza, inertzia eta erosotasunak albo batera utzi eta gizarte oraldakuntzarako lana eta borroka ezinbestean indarberrituko duena. Guztiaren gainetik, euskal gazteon eskubideen dofentsa beti azken muturreraino eramango duena.

Gazte erakundea. Euskal Herri oso(eta)koa. Independentista. Iraultzailea. Euskalduna. Internazionalista.

Euskal herriko gazte erakundea sortzera goaz, euskal herri berri eta gorriaren egunsentia orteaz marraztuko duen erakundea izatera goaz.

Euskal gazteok guztia dugu irabazteko, euskal herria dugu irabazteko. Eta irabaztera jotzen duonak, ezinbestean, ausardiarekin borrokatu beharra dauka. Apirilaren 20an kanbon euskal gazte herria ikusi, amestu eta ASMATZERA GOAZ INDEPENDENTZIAZ! JO TA KE irabazi arte!!

40 dutxa Informazio gunea

Informazio gunea

osasun asistentzia

eguneko esne janaria, egunak

# Zerbitzuak

02tan REAGGE 6KA GAUA selektur toshiba Darea  
 FERMIN MUGURUZA DUB MANIFEST  
 HAURTARRAK eta  
 INADAPTATS  
 SOZIEDAD ALKOHOLIKA  
 (gazte maketa topaguneko txapelketaren irabazlea)  
 21'30tan karpia erraldolan:

## ostirala

02tan EKINTZA taldea  
 23tan ERROMERIA karpia erraldolan  
 20tan MIKEL URDANGARIN eta ANJE DUHALDE ez

## osteguna

# Kontze

**Gazteriak**

**GUUREA**

eta igandean

# EUSKAL GAZTE-HERRIA

## Aberri egunera!

Kanbo - Euzko artea  
 Topagunea

Basteiz  
 Altsasu  
 Iruñea  
 Donostia  
 Iruñ-Hendakia  
 Kanbo  
 Baiona

11

12

13

# Herria

**eUskaL gazte herria ikusi, amestu eta...**

# iNdependent

Apirilaren 20, 21 eta 22an

Topagunez topagune, euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera



**Gazte Topagunea** etorri nahi izan ezkerre euskal herri gehienetatik autobusak antolatuta dira. Hiru egunetarako txartelak eta eguneroko sarreak salgai daude ohiko tokietan; **4.500 psta / 180 libera** lehenak eta **1.750 psta / 70 libera** bigarrenak. Kanbon behar adina zerbitzu izango dituzu eskura; dutxak, ura, komunak, akapalekua, osasun zerbitzua, janaria, ... eta garrantzitsuenak: giro jaterra.

Kanbo herraren eta herritarren partetik izugarritzko laguntza izan dugu, beraz gure begirunetik handiena eta errespetua errespetuok dira. **Gazte Topagunean** zehar herria zaindu, ahalik eta gutxien zikindu eta noski **EUSKARAZ MINTZA ETA BIZI!**

Hala ere zailaztarik izan ezkerre zure zerbitzura 943 55 26 95 telefonora (0034 Iparraldeko deitzeko).

# oharrak

**04tan Duak SELEKTAH KOLEKTIBOAREN eskutik**  
/ezker partean

**BETAGARRI 80/00** bertso originalerako kantari gonbidatuekin  
**BARRIKADA**  
**HATS**  
**ETSIAK**  
**SU TA GAR**  
**RIP**



**larunbata**  
21tan karpa erraldolan:

# ertuak


Nonbaitetik gatoz, nonbaitetik zatoz! Euskal Herriko gazteok badugu iragan oparo bat, idela eta borrokotan oparoa. Milaka izan dira gure herriaren iragana idatzi eta miloika kolorez zipriztindu dituzten gazteak. Indar eta ausardiaz, borrokarako grinaz, merezi zuelako.

Eta merozi duelako. Gazteok egun borrokan jarraitzen dugu eta jarraitu behar dugu. Gure horriaren defontsa eta eraikuntzan, garai eta une latzenel aurre eginez. Inoiz baino boharrezkoagoa da egun galdirik ez egotea. Gure herriari zor diogu, gure buruari zor diogu. Zure buruari zor diogu.

Etorkizuna ez dago idatzia eta ez gaudu prest inori gure ordeztu dezan uztoko. Eta bideak irakiko ditugu gure kabuz, guk geuk sortutako tresnekin, **INDEPENDENTZIAZ!** Euskal Herriko gazte erakunde herriarokin borrokara lotuz, etorkizuna gurea delako, zurea delako.

Gazte Topagunean duzu aukera, dugu aukera, gazte guztiok bildu eta elkarrekin, etorkizuna, euskal gazte herria ikusi, amestu eta asmatzeko. Elkarrekin, baturik, muga guztien gainetik Euskal Herria bat da aturririk oborora, gazteria bat da.

Gazteria badao, gazte mugimendua aurrora! Joan gaitzean batera, bildurik, baturik. Etor zaitoz **GAZTE TOPAGUNERA!** Gure herri eredu irudikatzena, independentiaz sortzena. Euskal gazte herri independentea Gazte Topagunean. Zurea eta nirea, gazte guztiona, **GAZTE TOPAGUNEA!!**



## kafe-karpa kultur KARPA

**OSTEGUNA.-**  
 13'30tan Karparen IREKIERA  
 16tan CELINE MUNCIE KANTARIA (kanbo)  
 17tan BIDE ERTZEAN  
 18tan XABOT (EEBB)  
 20'30tan EUSKALOFF 2050 antzerki lana  
 22tan gunearen ITXIERA

**OSTIRALA.-**  
 10etan gunearen IREKIERA  
 12tan POESIA ERREZITALA (Vladimir brigaden eskutik)  
 13tan IPUIN KONTAKIZUNA eta Ipuin horrikotaren osaketa DOROren eskutik  
 15'30tan PEPI eta GABI antzeziana  
 ORROE taldearen antzerki koreografia: SU ETA GAR eta ASKE  
 17tan ARDOAZ antzerkia ANDER I IPUS-en eskutik.  
 18tan MARA (audio)  
 19tan PETTI  
 21tan POTATO  
 22tan gunearen ITXIERA

**LARUNBATA:**  
 10-tan gunearen Irekiera  
 10etatik 13lara MORAUren eskutik buste herri minorizatuetaiko musika.  
 15tan LABURMETRAI MARATOIA

-40 ezetz	Muerto de amor
-Txotxi	-Requiem
-Haragia	-La vaca
-El trabajo	-El viento africano
-Amor de madre	-Por un infante difunto
-The Raven	-Raziclon iluziera

16tan BERTSO TRAMA  
 17tan AIRE ANIZPAK  
 17'30tan SELEKTAH kolektiboaren eskutik HIP-HOPa.  
 19tan gunearen Itxiera.

(\* egunero eguerdiko 14etatik 15:45ra ibiltza egongo da garbitu alital izateko)

## Eztabaida eta mahaingurutarako karpa

**OSTEGUNA:**  
 17'30 euskal pentsamenduari buruzko hitzaldia: JOXE AZURMENDI

**OSTIRALA:**  
 12tan "KULTURA GILTZAPEAN" KOLDO IZAGIRRE moderatzailea  
 3 preso ohirokin  
 17'30tan ALIZIA STÜRTZEN: "Kultura askalazio bat mundu globalizatzean"

**LARUNBATA:**  
 12tan EUSKAL MUSIKA EKOIZPENAREN inguruko mahaingurua (managerrak, talde profesionalak, zirkuito alternatiboetako kideak, musika kazetariak, talde hasi berriak...)  
 16'30tan LITERATURA eta MUSIKA mahaingurua.

### Erakusketa aretoa

Hiru egunetan zehar gazte artisten ekoizpen ezberdinak, marrazki, argazki, marjio, grabatu eta eskultura ezberdinak ikusgai.

## EuSkAL eKoizpenaren AZOKA

